



TOKIKOM karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2013ko azaroaren 8a
344. zenbakia. 25. urtea



Oposiziotik aurrera begira

Sei zinegotzirekin eta aginte makilarik gabe pasa ditu EAJ alderdiak azken bi urteak Orioko Udalean. Gaur arteko errepaso egin dute KARKARarentzat.

05

Orioko kontuak
Ordenantza fiskalak

08

Kirolak
Kanikrossa

11

Aiako berri
Urdanetako sanmartinak

29

Herritarra
Macarena Arrieta



PUBLIZITATEA

MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK

Santiago 22004 - 18 postakutza
Tel: 943 833 743
Fax: 943 131 631
E-mail: mantero@santierola.com
28818 ORIO - GIPUZKOA

Esferako balbula
ADOR kalitate onarekin

FISIOTERAPIA Gorka Iz Arriegi eta Nabilia Mirenzen
NUTRIZIONISTA Gorbete Alpuzi

sinergia *investigacion fisioterapia*

Ibal ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 06 77 ~ 685 71 85 95

karkara
Karkara aldizkariak

ETA
Eta Arkupe elkarteak

k k k k k k k k
Karkara laguntzaileentzat

saris dute

30 €

Arkupeko dendetan gastatzeko

Urriko sarituak:

Gregorio Ostolaza Iraola
(Itziar Kirolak-en)

Mikel Gaztelumendi Arrilaga
(Muxutruk lore dendan)

BAIETZ %65!

2015ean orain baino 773 tona errefus gutxiago sortuko dugu oriotarrok

2015ean 114.276 euro gutxiago gastatuko dugu zabortegietan

ORIOKUDALA

Birziklatze-tasa:		Errefusaren kopurua:		Zabortegiko faktura:	
2012	2015	2012	2015	2012	2015
%31,8	%65	1589 tn	816 tn	234.813 €	120.537 €



Ezker paretetik

1

Oteizari kasurik egin bagenio, bere ikuspegi ta bere gomendio, errebote plazaren jabe zen Orio. Gaur kiosko gainetik negarra dario.

2

Larruzko pilotaren botearen kankak larrutik patu ditu perspektiba faltak. Tenis, frontenis, padel ta hoi en zalapartak. Hil kanpaia jotzen du frontiseko txapak.

3

Adorerik ez dago gureai eusteko, bai berritasun oro probatzen hasteko. Lehen koadroak pilotan ziren jolasteko, prain koadro gehiegi dago ikusteko.

344

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkartea

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegi,
Onintza Aiestaran, Iker
Gurrutxaga, Eli Lasa eta
Idurre Lizarralde

Publizitatea

Iban egiguren

Publizitatearen diseinua

Iban egiguren

Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola eta
Rikardo Uzquidun

Ale honetako laguntzaileak

Alberto Agirreazaldegi,
Eider Begiristain,
Ibai Esoain,
Irati Berasaluze,
eta Shua Larrañaga

Laguntzaileak

Eli Huegun
eta Iñaki Iturain

Diseinua

Karkara taldea

Banatzailak

Narrea Etxeberria
eta Esti Uranga (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko:
Iban Egiguren -688 859 682-
edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea



Tokiak aprobetxatzen

Goizean goiz batzuetan eta iluntzean besteetan korrika egitera joaten naiz sarritan. Toki ederrak ditu Oriok horretarako. Leku aproposak, ordekan.

Nire gustuko bideetariko bat barra berrira edo *Puto Murora* doana da, batez ere auto trafikorik apenas dagoelako.

Baina badu arazo handi bat, gutxienez, bide horrek: ez dago argizatuta. Intuizioz saihesten ditut zuloak eta trabak. Erori ere egin izan naiz inoiz. Pena da horrelako aukera izan eta ezin gustura erabili!

Egokia litzateke bide hori argizatzea. Ez ditut farola handi eta dotoreak eskatzen; nahikoa dira lurrean jarritako argi txikiak Zarautz eta Getaria artean dauden edo Aiako ibilbide berrian jarriko dituztenen antzerakoak.

Idea horren kostua ez dut uste oso handia izango denik. Gainera, Oriok dituen kirolari piloak eskertuko lukeela iruditzen zait.

Aparkaleku berriak amesten dituzte batzuek; nik, berriz, Oriok bazterrak oinezkoentzat edo korrikalarientzat berreskuratzea. ■ **G. K. Garate.**

EA Jren salaketa: Bilduren kudeaketa negargarriak oriotarrei ordainaraziko die

Bilduk udaleko diru sarrerak igo nahi ditu, oriotarrei aplikatzen zaizkien tasa eta zergak igoaz. EAJk gogora ekarri nahi du, beraiek gobernuan egondako azken urtean, krisiaren ondorioz bizi zen egoera larriaz jabetuta, zergak izoztu egin zituela. Bilduri horixe egiteko eskatzen diete, honela Orioko familiek hila bete amaierara iristeko dituzten zailtasunak ez areagotzeko.

Besteak beste, hauek dira pasa den osteguneko, hilak 31ko, plenoan Orain herri plataformaren babesarekin onartu ziren 2014ko ordenantza fiskalak:

Etxebizitza hutsen *IBI*a+%100.

Hilobiratze tasa+%25.

Etxebizitzen zaborren tasa+%7.

Komertzioen zaborren tasa+%9.

Kiroldegiko abonua+%5.

Kiroldegiko ekintzak+%7.

Hiltzea orain luxua al da?

Ez al da hobia kiroldegiko instalazioak mantendu eta hobetzea erabiltzaile gehiago erakartzeko eta honela prezioak igotzeko beharrik ez izateko?

Azken bi urteotan EAJko kideak, herritar askoren iritzia eta nahiak udaletxera eramanez, kiroldegiko hainbat inbertsioen beharra azaldu eta eskatu du. Eta ez da ezer egin! Hori bai, Bilduk, Orainen

babesarekin, tarifak igotzeko erabakia hartu du.

Bilduk hartu duen beste erabakia izan da Arratola, Ubegun edo Santio auzoetan bizi direnen musika eskolako matrikulen prezioa hirukoiztea. Orain arte, EAJ gobernuan zela, aiarrek oriotarrek adina ordaintzen zuten. Izan ere, musika eskolara etortzen ziren ikasleek eta beren familiek bizitza gure herrian egiten zutelako kontuan hartzen zen. Orain 10.000 euro aurrezteko, ikasle hauei prezioa hirukoiztu diete. Zer nahi du Bilduk, familia hauek beraien erosketara eta gastuak ere Oriotik kanpora egitea?

Eta gutxi balitz bezala, kanpineko bungalowen prezioetan ez dago igoerarik, %0ko igoera. Non gelditu da oriotarrek lehentasuna zutenaren lelo hura? Zer nahi dute oriotarrek kanpokoen oporraldiak diruz laguntzea?

Hauxe da Bilduren kudeaketa modua. Udaleko diruzaintzan 2011n 12 milioi euro zeuden eta Gipuzkoako Udalik saneatua izatetik kudeaketa kaskarrena izatera pasatu da, Udaleko kaxa 6 milioitan utziz 28 hilabetetan. Eta gainera zergak igotzeko muturra dute. ■ **Orioko EAJ.**

Atera kontuak

Azkenaldian ez-ohiko udalbatzarrak bakarrik deitu omen ditu Beñat Solaberrieta alkateak. Egoera kaotikoa omen, Jon Redondoren esanetan. *El País* eta beste zenbait komunikabideetan gaia zabalteko denbora hartuta dabilta jeltzaleak.

Ez dugu denbora handirik hartu nahi halako mezuak erantzuten. Gure lehentasuna Udaleko lana da. Baina aurpegira barre egiten ere ez diogu utziko inori: akatak zintzilik daude www.oriola.com helbidean, hona hemen ondorioak: legealdi erdia pasatxo, konparazioak eginda, udalbatzar bat gehiago deitu da Bildu agintean dela. Hori gutxi balitz hara zer dioten datuek: Jon Redondok berak Beñat Solaberrietak baino ezohiko pleno bat gehiago deitu zuen legealdi erdi pasatxoan. Egoera kaotikoa izatekotan ere, antzekoa beraz.

Seგი lanean. ■ **Orioko Bildu.**

Bertso eskola eta Txapelketa Nagusia

Aurtengo udazkena bete bete dator bertsoa gustuko dugunontzat, ezin esan kontraktorik!

Batetik, bertso eskola kideak hasiak gara ostegunero bertso txar batzuk botatzeko elkartzen.

Bestetik, Bertsolari Txapelketa Nagusia ere bere bidea egiten hasia da, lau urte eta gero. Herriko bertsozale batzuk ohitura dugu txapelketako bertso saioetara elkarrekin joateko. Kotxea partekatzeaz gain, saioaren gorabeherak komentatzen ditugu, jakintsu usteko saskilustre batzuen gisan.

Esan beharrik ez dago gonbidatuta zaudetela bai bertso eskolara zein bertso saioetara etortzeko. Bertso eskola, ostegunero izaten da 19:30ean Kosta Tailerretan. Bertso saioetara joateko, aldiz, saio baino bi ordu lehenago 15:30ak aldera, Aterpe tabernan biltzen gara.

Ia guk adina gozatzen duzuen bertsoekin! ■ **Errikotxia Bertso Elkarte.**

Katekesirako deia

Katekesiko lehenengo mailako-Eskolan LH1- haurren izena eman nahi duten gurasoentzat bilerak izango dira datorren asteartean, azaroaren 12an.

Aian, 17:30ean, Erretoretxean.

Orion, 20:30ean, Parrokiako Saloian.

Bileran, izenak emateaz gain, urteko egutegia, gaien azalpena eta egitasmoa emango dituzte. ■ **Aiako eta Orioko Parrokiak.**

Goian Bego Jose Ramon

Sei urte igaro dira Orion eskubaloi taldea desagertu zenetik. Hamabi gazte ginen astero-astero entrenatzen eta hara eta hona ibiltzen ginenak, baina gure nahi hori ez zen inolaz ere beteko Joseba Unanue *Tximas*engatik eta bere aita Jose Ramonengatik izan ez balitz.

Hamaika egun xahutu zituzten gure aurpegiak irriz margotzeko. Beren denbora pertsonala alde batera utzi eta hara eta hona eramaten gintuzten, bueltan ezertxo ere jaso gabe.

Tamalez, hilaren 5ean Jose Ramonek betiko agur esan zigun eta lerro hauetatik gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu dagoen lekuan dagoela ere, bere garaian gugatik egin zuen guztiagatik. Oroitzapen asko ditugu Jose Ramonenak: gu zuzen jartzea lortzen zuen pertsona gutxitarikoa zen, baina zeharo gustura ibiltzen ginen berekin. Denboraren poderioz ohartu gara zenbat irakatsi zigun.

Eskerrik asko gugatik egindako guztiagatik. Zuekin igarotako une zoragarriak beti oroituko ditugu talde hura osatzen genuen guztion artean.

Besarkada bero handia familia eta inguruko guztiei. Mila esker Jose Ramon eta Joseba. ■ **Zuen Xurumurruko mutilak.**

Udalaren lehen onarpena jaso dute 2014rako ordenantza fiskalak

Bilduren eta Orainen aldeko botoekin eta EAJren kontrakoekin onartu zituzten datorren urterako ordenantza fiskalak. EAJko ordezkariak ez zuten azalpenik eman beren ezezkoa arrazoitzeko

Urriaren 31ko udalbatzarraren ohiko bilkuran onartuta geratu ziren 2014rako Orioko Udalaren ordenantza fiskalak.

Horrez gainera, Arraunetxeko aisialdi zerbitzuaren gestioa nork egingo duen erabaki zuten batetik, eta, bestetik, Orioko gazteen aisialdiko lokalak arautzen dituen udal ordenantza onartu zuten. Karela kiroldegiaren kudeaketa integrala eta Arraunetxeren zein beste antzeko zerbitzu batzuen kudeaketa adjudikatzeko baldintza orriak ere onartu zituen udalbatzarrak, guztiak Bildukoekin eta Orainekoekin aldeko botoekin. EAJkoek ezezkoa eman zuten guztietan, Arraunetxeko aisialdiko gestioa nork egingo duen erabakitzerakoan izan ezik; hor abstenitu egin ziren.

Ordenantza fiskalak

KPIaren igoera orokorra %2,1ekoa izango da tasetan eta zergetan.

Zergei dagokienez, ondasun higiezin zerga, *IBI*a KPIa, igoko da, baina etxebizitza hutsei zerga berezia jarriko zaie, %100ekoa. Etxe hutsak zein diren definitzeko, ordenantza argitaratuko du Orioko Udalak. Jarduera ekonomikoaren gaineko zergak ez zuen inolako igoerarik jasan 2013an, baina 2014rako %1,93 igoetzeko proposamena onartu du Udalak.

Tasen inguruan, hainbat tasa izoztea onartu du Orioko Udalak: Aiakoekin TAOko biñetarena –hitzarmen bidez zehaztuta–, turismoen lizentzia, lizentzia urbanistikoa, Udalaren areto eta gelen erabilera... Garajeen alokairuko prezioak ere izoztu egingo dituzte.

Gainontzean, azokari dagokionez, bi prezio jarriko dituzte. Oriotarrek orain arteko bera ordainduko dute, baina, beste guztiek, gaur egun ordaintzen dutenaren bikoitza ordaindu beharko dute.

Udako TAOa orduko 1,25 euro kobratuko dute. Dena dela, aparkatutako laugarren ordutik aurrera %20ko deskontua izango dute ibilgailuek. Txu-txurako txartelaren prezioa 0,60 eurokoa izango da. Musika eskolan KPI + %2 igoko da matrikularen prezioa. Kiroldegiko abonoa %5 igoko da eta ekintzen prezioak %7,5. Igoera horiek urtariletik aurrera egingo dituzte.

Arraunetxeko zerbitzu medikuen pre-



Gobernuaren aldeko botoekin atera ziren aurrera urriaren 31ko gai guztiak. KARKARA

zioak ere zehaztu dituzte. Oinarrizko kirol medikuntza azterketa 35 eurotan egin ahal izango da, fisioterapia saio bakoitza 35 eurotan, lehenengo hipoxia saioa 60 euro ordainduko da eta gainerako hipoxia saioak 40 euro balioko dute.

Tasa batzuk igo eta beste batzuk izoztu egingo dira. Hobariak, berriz, 2013ko berak izango dira

Kanpinari dagokionez, bungalowen prezioak izoztu egingo dituzte. Kanpinean finko daudenei KPI + %3ko igoera egingo diete, erdi finko daudenei KPIaren igoera eta partzela arruntei KPIaren igoera. Gainontzeko zerbitzuen prezioak ere izoztu egingo dituzte.

Hilerriko tasak ere igo egingo dituzte. Datorren urtean lanak egin nahi dituzte bertan eta horretarako %25 igoko dituzte tasak. Nitxoekin eta panteoien esleipen kostuetan, ordea, KPIa baino ez da igoko.

Zaborren tasak ere igo egingo dituzte. Hondakin organikoa jasotzeko errefor-

tzua emango du Urola Kostako Udal Elkartek, eta, ondorioz, garestiagoa izango da. Hala, etxebizitza bakoitzak KPI + %5eko igoera jasango du zabor tasetan. Jatetxeek –janela duten tabernak, erretegiak...– eta elikagaien komertzioek, berriz, KPI + %7-ko igoera izango dute.

Herritarrentzako dauden hobariak, berriz, 2013ko berak izango dira.

Euskararen erabilera

Jon Agirresarobe euskara zinegotziak hitza hartu zuen Karela kiroldegiaren kudeaketa integrala eta Arraunetxeren eta beste antzeko zerbitzu batzuen kudeaketa adjudikatzeko baldintza orriak onartu aurretik.

Baldintza orriak euskaraz egiteko eskatu nien teknikarietara eta ez da horrela izan. Duela urtebete Udalean, bertatik egiten zen lana, euskaraz sortzeko konpromisoa hartu genuen. Gaur arte ez dut euskaraz jaso testu hori. Baina itzultzea ez, euskaraz egitea da garrantzitsua esan zuen Agirresarobek. Ez da inor zigortu behar, baina inurri lanean jarraitu beharra dago, bukatu zuen zinegotziak.

ORIOKO KONTUAK



Alderdi guztien arteko akordioa lortu da oriotarrek gehiago birziklatzeko bidean. KARKARA

2015erako %65a birziklatzera iristeko helburua adostu dute

Hondakinen mahaian izandako eztabaiden fruitua izan da helburu hori. Bilduk, EAJk eta Orainek bere egin dute hondakinen mahaia hartutako erabakia

Hondakin gutxiago sortzeko eta gehiago birziklatzeko beharrezkoa izaten da sentsibilizazioa indartzen duten ekimenak egitea. Modu horretara, hondakinen sailkapena ondo egiteko grina etxe guztietara iristen da. Horretan saiatu dira lanean daramaten urtebetean, hondakinen mahaikoak. Horretarako, hondakin organikoa sailkatzeko kuboak banatu dituzte –*Ez da marroia, birziklatzea beharrezkoa da* kanpaina–, erosketak egiteko plastikozko ontziak banatu dituzte –*Ontziratuz zaitez* kanpainaren barruan– eta herritarrek ongi sailkatzeko ikastaroak antolatu dituzte.

Baina mahaia osatzen dutenak hondakinekin dagoen arazoarekin oso kezkatuta daude, izan ere, zabortegien bizitza agortua dago eta sortzen dugun hondakin kopurua oso altua da oraindik. Hondakinen mahaia osatzen dutenek esan digutenez, *sortzen dugun hondakina birziklatu egin behar dugu. Horregatik, Udala ordezkatzeko dugun hiru taldeon*

helburua oriotarrok 2015 urterako %65a birziklatzea izango da. Herri guztia erantzat erronka izatea nahi genuke, lortu dezakegula sinetsita gaude-eta. Eta helburua adostearekin batera hau lortzen ez badugu hartu beharreko neurriak aztertu eta eztabaidatuko ditugu aurrerantzean.

Datozen hilabeteetako lana

Orioko hondakinen ordenantza idaztea eta adostea izango da alderdi politikoek hondakinen mahaiarekin batera datozten hilabeteetan egingo duten lanik garrantzitsuena. Bitartean, herriko edukiontzien mapa berritzen ari dira, eta, horren barruan, hondakin organikoari protagonismoa eman nahian dabiltza. *Horretarako, herritarren betebeharrak hobeto egokituko den antolaketa berria jarriko dugu martxan* adierazi dute hondakinen mahaiko kideek. Publizitate kanpaina ere martxan jarri dute, herritarrek %65eko birziklatze mailara iristera sentsibilizatzeko.

LABUR

Kilometroak

Aurkezpen ekitaldia hilaren 22an

Bi aste barru emango du jakitera Orioko Herri Ikastolak zein izango diren Kilometroak 2014 festako leloa eta logoa. Horretarako, azaroaren 22an, ostiralarekin, iluntzeko 20:00etan hasita, aurkezpen ekitaldia egingo dute Karela kiroldegian. Joseba Orella koordinatzaileak esan digunez, *ekitaldi xumea izango da. Helburu nagusiak festari hasiera ematea eta Kilometroak 2014ren marka jakitera ematea izango dira*. Horretarako hiru zaitan banatutako ekitaldia egingo dute. Herri bat martxan badabilela irudikatu dute lehen zatian, logoa eta leloa zein diren jakinaraziko dute bigarrenaren eta datorren edizioko arropa erakutsiko dute bukaeran. Arropa desfilean, maila guztietako ikasleek –Oteitza lizeoak barne–, ikasle ohiek, langileek, irakasleek eta gurasoek hartuko dute parte. Sarrerak ohiko tokietan erosi ahal izango dira 3 euroren truke eta sarrerarekin arropa sorta baten zozketan parte hartzeko aukera izango da. Arropa hilaren 23tik aurrera, Bordatxo taberna dagoen eraikinean, San Luiseko sotoa zenean, salduko dute.

Kultura

Gozategi taldea Argentinan

Azaroaren 6an abiatu ziren Gozategi taldeko ordezkariak Argentinako Villa Maria herrira. Han, diasporako euskaldunek Euskal Aste Nazionala antolatu dute eta Gozategi taldeari bertan izateko aukera eman diete. Duela bi urte ere izan zuten aukera, baina, arazo batzuk tarteko, ezin izan zuten joan. Oraingoan, ordea, bi kontzertu eskaintzekoak dira: hilaren 8an bata eta 9an bestea. Argentinan izango diren denboran, eguneroko kontakizuna egingo dute Karkararen web orrialdean ireki duten blogean.

Santa Zezilia Danbolinen

Santa Zezilia eguna bi egun lehenago, azaroaren 20an, ospatuko dute Danbolin musika eskolakoek. Arratsaldeko bostetan kalejira egingo dute trikitixa, pandero, eta txistu ikasleek. Musika eskolan hasiko dute bidea, eta han piano-jotzaileak izango dira. Beste hiru geldialdi ere egingo dituzte: Baxoaldeko parkean, Ikastolako pergolan eta Herriko Plazan. Kalejira bukatzean, 19:00etan, kontzertua izango da Kultur Etxean. Kontzertua amaitutakoan, aurreko ikasurtean 1., 2. eta 3. maila bukatu zutenei diploma bana emango diete.



Haritzarekin egina dago organoaren kanpoaldea. KARKARA

Organo berriaren doinuak hartu du eliza

Aurkezpen kontzertua izango da azaroaren 15ean. Salatxo abesbatzak ere kontzertua eskainiko du elizan, hilaren 23an, 20 urte betetzen dituela-eta

Itxura guztiz aldatu diote Orioko elizako koruari. Organo berria jarri dutenetik, erabat desberdina da tokia. Modernoa da, Unai Manterolak esan digunez, *Orioko izaera gordetzen duena. Baporeen puentearen itxura olatuen formarekin uztartu nahi izan da. Horrez gainera, hodiakin arraunlariek estropada irabazi eta pala jasotzean, palek hartzen duten itxura ere eman nahi izan diogu organoari.*

Baina historia luzea du Orioko elizako organoak. Aurrez zegoen organoa 1935ean Pugnau eta Olaziregi eraikita-koa izan zen. Baina Olaziregi eta Pugnauen organoa, 1859an Jose Antonio de

Oriak eraiki zuenaren hodiak erabilia egin zuten. Beranduago, 1965ean, aurreko organoa berritu egin zuten. Hirurek tailerra Azpeitian izan zuten, euskal organo gehienak bertan egiten baitziren.

Hori dela eta, organo berria egin duen enpresak, aurreko organoaren ñabardurak mantentzeko ahalegina egin du. Izan ere, haien weborrian diotenez, *aurretik lan egin dugun euskal organoekin konturatu gara Europa erdialdekoekin alderatuta soinu ñabardura desberdinak dituztela. Horiek gure kulturaren parte dira, eta gorde beharrekoa da.*

Aurreko organoetatik 853 hodi man-

tendu dituzte eta 1.152 berri jarri. Guztira 2.005 hodi dituen organoa mezararako eta kontzertuetarako diseinatuta egoteaz gainera, erabilera didaktikoa izateko ere pentsatuta dago. Barrutik bisitatu eta funtzionamendua argi eta garbi ikusteko aukera ematen du eraikita dagoen moduak. Orain arte modu horretan eraiki den bakarra izan da. Horrez gainera, organoan idatzita dagoen guztia, euskara hutsean dago.

Hiru kontzertuko zikloa osatu du Orioko parrokiak organo berria jendaurrean aurkezteko. Azaroaren 15ean eta 29an eta abenduaren 13an izango dira

Kontzertuak

Hiru kontzertuko zikloa osatu du Orioko parrokiak organo berria jendaurrean aurkezteko. Aurkezpen kontzertua azaroaren 15ean, ostiralarekin, egingo dute. Bertan, organoa egin duenak hitz egingo du eta jendeari organoa zer den ulertarazten saiatuko da argazkiak eta erabilia. Segidan, Esteban Landartek, Musikeneko eta Baionako kontserbatorioko irakasle irundarrak, kontzertua eskainiko du.

Bigarren emanaldia, azaroaren 29an izango da. Bertan, Easo gizezkoen koruak abestuko du eta Oscar Candendo organo-jotzailea izango da teklatuan. Candendo Bartzelonako kontserbatorioko irakaslea da. Hirugarren eta azken emanaldia, berriz, abenduaren 13an izango da, Loreto Aramendi organista oriotarrak –umea zela Donostiara joana– eskainia.

Saio guztiak ostiraletan eta iluntzeko 20:00etan izango dira. Sarrera doakoa izango da, baina, kontzertua bukatzean, eliza atarian, borondatea eman nahi dutenentzat mahaia jarriko da.

Salatxo abesbatzak 20 urte

Salatxo abesbatzakoek ere ongi dakite zer den Orioko elizan abestea. Ibilbide luzea egin dute, eta 20 urte beteko dituzte azaroaren 22an. Hori dela eta, hilaren 23an, larunbatarekin, 20:30etik aurrera, kontzertua egingo dute elizan, Astigarragako eta Hernaniko abesbatzekin batera.

Hogei urteko bidea jasotzen duen kantua abestuko dituzte, *Jotas extremeñas, Signore delle cime* edo *Kaiku* bezalako abestiak. Horrez gainera, Verdi hil zela 200 urte bete direla gogoratzuz, *Aida, Nabucco* eta *Il trovatore* operetako zatiak abestuko dituzte. Pianoan Xabier Lizaso izango dute laguntzen.



Orioko lehendabiziko kanikrossa izango da azaroaren 24an

Euskadiko Ligarako proba puntuagarria izango den arren, kanikross solidarioa izatea da antolatzaileen helburua. Baztertutako txakurrei laguntzera bideratuko dute bildutako dirua



Juan Mari Lujanbio arraunlari ohia kanikrossetan ibili izan da. BALEIKE

Orioko lehenengo kanikrossa antolatu dute Katu Horia albaitaritzak klinikakoek eta *Txikas de Etxauri* elkarteak, azaroaren 24an, goizeko 11:0etan hasita.

Zortzi kilometro eta erdi izango ditu probak: Hondartzan hasi, Itxaspera igo, handik Kukuarrira ailegatu, gurutzetik Longako bordatik barrena galtzada nagusira jaitsi eta Itxaspera joko dute berri. Handik, hondartzarako bidea hartu eta bertan bukatuko da lasterketa.

Menditik egitearen arrazoia bat eta bakarra da Mikel Escuder albaitariak esan digunez, *txakurrarentzat ez da ona asfaltoaren gainean korrika aritzea. Horregatik, ibilbidearen zatirik handiena lur gainean egiten saiatu gara.*

Escuderrek gogorarazi du txakurrentzako kirol jarduerak dela: *txakurrak beti aurretik egin behar du korrika, ez alboan edo atzean. Haien ibili behar dute gustura. Dorsalak banatu aurretik albaitaritzak azterketa egiten diete eta kartila aurkeztu behar dute parte-hartzaileek.*

Proba lau adin taldetan banatuko dute, eta horietako bakoitza gizonezkoetan eta emakumezkoetan zatituko da. Izena emateko www.herrikrossa.org weborrira jo behar da.

Lasterketa solidarioa

Lasterketaren helburua baztertutako txakurrei laguntzea da. Hori dela eta, bilduko den dirua *Txikas de Etxauri* elkar-tearentzat izango da. Horretarako, pintoak eta kamisetak ere salduko dituzte proba bukatutakoan. Falkoneria ikuskitzuna izango da, eta euro baten truke, txikientzat, baita pottokan ibiltzeko aukera ere.

LABUR

Saskibaloia

Iparragirre Euskadiko txapel-dun

Azaroaren 1eko zubian jokatu zen Euskadiko lurraldeen arteko txapelketa. Sara Iparragirre oriotarra Gipuzkoako selekzioarekin izan zen han. Lehen partida Bizkaiko taldearen aurka jokatu zuten. Azken unera arte markagailuan atzetik izan baziren ere, irabaztea lortu zuten. Bigarrena, Arabaren aurka jokatu zuten: garai-pen errazagoa. Hala, bigarren urtez jarraian irabazi du txapelketa Iparragirrek.

Surfa

Gesalaga nagusi Open kategorian

Azaroako lehen asteburuan jokatu zen Orioko 20. Surf Txapelketa. Hilabete eta erdiz atzeratu eta gero, bizpahiru metroko olatuak altza ziren astebukaera horretan eta txapelketa ikusgarria egiteko aukera eman zuten itsasoaren baldintzek. Gainera, eguraldia lagun izan zuten bi egunetan. Hiru kategoriatan jokatu zen txapelketa. Open kategorian Liber Gesalaga izan zen irabazle, 16 urtez azpikoetan Lander Zumeta eta bodyboardean Mikel Atxega. Sari banaketa eginda, marmitako janarekin bukatu zuten festa surflariek.

Arrauna

Kirol merituari domina Aizpuruari

Badira urte batzuk Oier Aizpuru zumaia-rra Orio Arraunketa Elkartearen dabilenetik. Orduetik piraguismoa utzita duen arren, piraguan ibiltzen zeneko lorpenengatik kirol merituari brontzezko domina eman diote Kirolaren Goi Kontseilukoek. Aizpuru lau aldiz munduko txapelketan domina lortua da K-4an eta Manuel Bustorekin beste 4 aldiz jarraian munduko txapeldua izan da maratoian. Orduetik hona Orion dabil arraunean eta, bigarren txalupan hasi bazen ere, lehenengoan irabazita du bere tokia.



LUSA

“Gauzak landuta beti iristen da bakoitzaren momentua”

Jon Azkue

Bidasoa Irun taldeko jokalaria

Uda honetan jokatu duen Munduko Txapelketan egindako lan onari saria eman zioten. ASOBAL ligako lehen jardunaldietan goletzaile nagusia izatera ere iritsi da. 18 urte baino ez dituen arren, argi dauka zein den bere tokia Jon Azkuek.

IKER GURRUTXAGA

Duela urte eta erdi debutatu zenuen ASOBAL ligan. Nolakoa izan da liga honetarako itzulera?

Azken momentura arte ez dugu jakin ASOBAL ligan jokatu genuen ala ez, baina azkenean aukera hori eman digute eta oso gustura gaude. Pertsonalki oso pozik nago, egia da duela urte eta erdi egin nuela debuta; baina orain desberdina da, garrantzi handiagoa dut taldean eta gustura nabil.

Arrate taldearen desagertzearekin Bidasoara joan zinen. Oraingoan zortzak

zure alde jokatu duela dirudi.

Arraten debuta eginda, bazirudien hura zela momentua goi mailan jokatzeko, baina taldea desagertzearekin aukera hura joan egin zen. Handik Bidasoara pasa nintzen, eta, orain, bi denboraldi eta gero, berriz ASOBALera itzuli naiz. Bai, zortea izan dut, aukera hau aprobetxatzeko talde egokian nagoelako.

Lesio gogor bat izan duzu tartean. Itxura guztien arabera, bikain errekupeatu zara.

Behatzean lesio gogorra izan nuen eta hiru hilabetez jokatu ezinda egon nintzen. Hala ere, errehabilitazioari esker

behatzak ez dit arazo gehiago eman, beraz, lesio hura guztiz ahaztua dagoela esan daiteke.

Denboraldi hasiera honetan ligako goletzaile nagusia izatera ere iritsi zara.

Non dago sekretua?

Ez dago sekreturik, gogor lan egitea da sekretu bakarra. Gauzak landuta beti iristen da bakoitzaren momentua. Orain oso sasoi onean nago eta hori aprobetxatu beharra dago.

Denboraldi gogorra izango zela jakin bazenekiten. Salbatzearekin konfor-

“Gure helburu nagusia mailari eustea da, eta pentsatzen dut salbatzea ez den beste helbururik jartzea akatsa dela”

“Ingeniaritza elektronikoa ikasten ari naiz. Ez da erraza dena batera egitea, baina ahal bezala ari naiz pixkanaka-pixkanaka”

me?

Gure helburu nagusia horixe da, eta pentsatzen dut salbatzea ez den beste helbururik jartzea akatsa dela. Denboraldia hasi zenetik badakigu bukaeran atzetik bi talde edukita, helburua guztiz beteta egongo dela.

Selekzioarekin kontzentrazioa izan duzu aurreko asteburuan. Udan sekulako Munduko Txapelketa egina zara.

Pixkanaka goraino iritsi arte?

Edozein kirolariren ametsa da goraino iristea. Oso gustura ibili naiz uda honetan, asko disfrutatu dut... batek daki goraino iritsiko naizen ala ez. Helburua, gustuko dudana kirol honetaz disfrutatzea da beti.

Zein da zuretzako erakusleiho garrantzitsuagoa: Bidasoa ala selekzioa?

Aurten, Bidasoa ASOBAL ligan dagoenez, erakusleiho oso ona da estatuan ezagutzera emateko. Erakusleiho honek berak ere asko laguntzen du selekzioarekin joan ahal izateko, eta noski, behin selekzioarekin egonda, nork bere burua hemendik kanpora ezagutzera emateko. **Hala ere, eskubaloian jokatzeari gainera ikasten ere jarraitzen duzu, ezta?**

Bai, Ingeniaritza elektronikoa ikasten ari naiz. Ez da erraza dena batera egitea, baina ahal bezala ari naiz pixkanaka-pixkanaka. Niretzat oso garrantzitsua da ikasten jarraitzea eskubaloia ez baita betirako izango. Lehenago edo beranduago ikasketak horiek oso beharrezkoak izango direla iruditzen zait.

Elkarrizketa guztia irakurri ahal izateko, sartu www.karkara.com weborrian.



Aiako berri



AZKUE

“Nire indar eta gogoaren araberakoak dira margoetako koloreak”

Eva Azkue

Margolaria

Plazako Jauregi jatetxea berritu zutenetik erakusketa areto ere bihurtu da. Eva Azkue margolari zarautzarrak *Juego de damas* erakusketa jarri du ikusgai eta urte berrira arte egongo da. Emakumeen irudiak jasotzen ditu bere margo lanetan.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Arte Ederretan lizentziatua da Eva Azkue eta horretan egin du lan beti: zeramika irakasle, jostailu birziklatuekin eta gero Zarauzko ikastolan plastikako irakasle. Margotzen ere aspaldi hasi zen, zaletasunez, eta bistaratu egin ditu bere lanak.

Nolatan jarri dituzu zure lanak Aian?

Jauregi taberna aldatuta asko gustatu zitzaidan. Beste margo batzuk zeuden eta erakusketak egiten zituzten galdetu hutsarekin, nire lanak ikusi aurretik, aukera eskaini zidaten. Lotsatia naiz, ez nire

lanak erakutsi zalea, baina baietza eman nuen eta Aian, gutxienez, urte berrira arte egongo dira ikusgai.

Zer ikusi ahal izango da erakusketan?

Bi emakume mota daude nire margoetan. Dama jokoarekin zerikusia dute markoek ere, beltzak eta zuriak baitira. Hormetako kokapena ere emakumeen itxuraren araberakoa da.

Nolakoak dira emakume horiek?

Batetik, emakume borobilak, handiak espresio lasaia dutenak daude. Nahiz eta emakumeen irudiek kolore apala izan inguruan kolore beroak –horriak, laran-

jak, gorriak– dituzte, gehienetan borobilak, beren pentsamendu eta ametsak islatuz. Oihalak eta hariak ere josi ditut margo lanetan. Horiek hasierako lanak izan ziren, baina konturatu naiz, gaixotasun baten ondoren egindakoak, erabat bestelakoak direla: argalak, zuri-beltzean eginak eta besteek lasaitasuna islatzen bazuten hauek bestelako emozioak, agresiboagoak. Testurak sortzeko papera erabili dut eta ikatz-marrazkiak dira. Koloreak ere hotzagoak edo apalagoak sartu dizkiet. Erabiltzen ditudan koloreak nire indarraren eta gogoaren araberakoak dira. Nire osasun egoerak ere izan du eraginik aldaketan.

“Bi emakume mota daude nire margoetan. Dama jokoarekin zerikusia dute markoek ere, beltzak eta zuriak baitira”

“Ilerik gabe gelditu diren emakumeek nire txapelekin politik sentitzen direla entzuteak poz handiagoa ematen dit nire koadroak gustuko dituztela jakiteak baino”

Orain arropa diseinuan eta jostenari zara, ezta?

Gaixotu nintzenez onkologikoan probak egin nituen eta buruari buelta asko eman nizkion ilea eroriz gero zer egingo nukeen pentsatuz. Gero beharrik izan ez nuen arren *Valka* marka sortu dut eta txapelak, txanoak eta zintak egiten ari naiz kimioterapia tratamendua jaso eta ilea galdu edo burusoiltasuna dutenentzat. Txapelek gauza estetiko hutsa diruditen arren, sekulako garrantzia dute emakume horientzat. Beraz, ilerik gabe gelditu diren emakumeek nire txapelekin politik sentitzen direla entzuteak poz gehiago ematen dit nire koadro bat norbaiti gustatu zaiola jakiteak baino.

Zein berezitasun dute txapelek?

Burura ondo eutsi arren ahalik eta jostura gutxien izan behar dituzte, neurri justua eta bolumena. Horrez gain, txapelei aukera ematen diet ordezko ile luzapenak jartzeko. Klean ia edozeinek jantzi-ko lituzkeen txapelak dira, baina saiatzen gara pega-pega gelditu ez daitezen eta ile falta hainbeste sumatu ez dadin.

Aurrera begira zein asmo duzu?

Txapelen asmoarekin jarraituko dut, baina Aiako erakusketak berriz gogoan piztu dit margotzeko. Minbizia duten emakumeekin harremana izateak eragina edukiko luke nire lanetan. Ilearekin edo gabe egin, berek helarazten duten indarra islatuko nuke.





Aiako berri



Eskuz binakako finalak jokatu zituzten; igandean palakoak izango dira. MAIALEN MANZISIDOR

Asteburuan San Martin festak Urdaneta auzoan

Gauetan, Ihes naiz taldeak, Izer eta Alabier eta Laja eta Lutxurdio trikitilariak, Argilaurdenak taldeak eta Izer eta Narbaiza trikitilariak jarriko dute hurrenez hurren dantzarako musika Urdanetan

Joan den igandeko Jubilatuen egunarekin hasi ziren Urdanetako San Martin festak eta gaurtik, azaroaren 8tik, 12 asteartera arte luzatuko dira. Askotariko ekintzak izango dira festetan: musika, bertsolariak, trikitilariak, herri kirolak...

Ohikoak izan ohi dira erronka eta demak auzoko festetan eta igande eguerdian marka jartzeko saiakera egingo dute Izeta I., Izeta II., Izeta III. eta Izeta IV.ak. 100 kilokobolari 500 jasoaldi ematea izango da gainditu beharreko proba.

Arratsaldean auzoko idi eta behorren arteko dema egongo da Izetako Joxe Ramonen eta Mahaia Beheko Manoloren idi pareak eta Indate Berriko behorren artean. 20 minutuan zeinek plaza gehiago egin. Astelehenean ere arituko dira auzotarrak trontzan, txinga- eramaten, lokotx-biltzen, zaku karreretan...

Azaroaren 12an, baserrietan ibiliko dira gazteak oilasko biltzen Izer eta Narbaiza trikitilariekin eta gauean afaria egingo dute bildutako oilaskoekin. Gero erromeria eta patata dantza izango dira Ximorren eta festak bukatzeko traka.

EGITARAUA

Azaroak 8, ostirala

22:30ean: Mus txapelketa, Indamendin.

23:30ean: Ihes naiz taldea, Ximorren.

Ondoren, taberna irekita.

Azaroak 9, larunbata

16:00etan: Gorriti eta bere animaliak.

Ondoren, txokolate beroa bizkotxoekin.

21:00etan: Txahal jana, frontoian.

Afalostean, Peñagarikano eta Irazu bertsolariak eta Izer eta Alabier trikitilariak.

00:00etatik aurrera, Ximor irekita.

Azaroak 10, igandea

11:30ean: Meza nagusia.

12:00etan: Palaz binakako finala.

Ondoren, harri-jasotzaileak.

17:00etan: Idi eta behorren arteko dema.

22:30ean: Laja eta Lutxurdio.

Azaroak 11, astelehena

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren, patata tortilla lehiaketa.

12:00etan: Auzotarrak herri kirolatan, Haritz eta Asier Sudupe trikitilariekin.

22:30ean: Argilaurdenak taldea, Ximorren.

Azaroak 12, Oilasko biltze eguna

LABUR

Landa garapena

Urkome sarietarako proiektuak

Urola Kostako Landa Garapeneko Elkar-teak Urkome sarien hirugarren edizioa jarri du martxan eta azaroaren 15ean bukatuko da lanak aurkezteko epea. Bate-tik datu pertsonalak bidali beharko dira eta bestetik proiektuaren informazioa. Urola Kostako landa eremuan egiten diren jarduera berritzaileak sarituko dituzte bost arlotan eta bozka bidezko saria ere izango da; arlo bakoitzean 2.000 euroko saria emango dute. Besteak beste aintzat hartuko dituzte teknologia berrien erabilera, bideragarritasun ekonomikoa, enplegua sustatzea, berdintasuna, gazteen ideiak eta kooperazio proiektuak. Informazio gehiago dago www.urbome.com helbidean.

Kirola

Emakumeentzako pala saioak

Aiako Kirol Elkar-teak sustatuta, emakumeak pilota munduan murgiltzeko, pala ikastaroa jarri nahi dute martxan. Eskolak astean behin izango dira eta ordu eta erdiko saioak egingo dituzte. Azaroaren 6an ziren elkartzekoak eta orduan zehaztu behar zuten asteroko hitzordua jendearen eskaeren eta izena emandako emakume kopuruaren arabera. Oraindik norbaitek izena eman nahiko balu Kultur Etxera joan beharko du.

Epiola irabazle Kintopen

Astelehen gauean bukatu ziren Aiako XII. Kintopeko idi-probak. Lehen bi egunetan jende askorik ibili ez bazen ere, azkenengoan 250 lagunek giro polita bizi izan zuten dema plazan, lehia estua izan baitzen: lehenengoak bigarrenari 1,46 metroko aldea baino ez zion kendu. Oikiako Epiolak 64 plaza eta 1,90 metro egin zituen eta Elgoibarko Soartek 64 plaza eta 0,44 metro. Ondoren hurrenez hurren sailkatu ziren Urdulizko Urrutiko etxea anaiak; Birleko Iñaki Lopategi; Usurbilgo Bizkarre; Zumarragako Igeldo; Laudioko Mendiko; Lezoko Olatzar; Urdulizko Sistiaga; eta Eibarko Areta.

Gertakaria

Sutea Altzola auzoan

Altzola auzoko Apaizetxea baserria suntsitu zuen ustez tximinia inguruan sortutako sute batek azaroaren 1ean. Etxebizitzan zegoen gizonezkoa suhiltzaileek atera zuten zauririk gabe. Zenbait animaliak ordea, kalteak jasan zituzten.





Aiako berri

Aiako leihoa

Irati Berasaluze

ManTXester TXuri-urdirin

2013ko urriaren 23a, Manchester. Britainia Handiko hiri industrialia goibel esnatu zen egun hartan. Euria goitik behera ari zuen gogotsu. Hoteleko leihotik so eginez kaleetan zehar pertsona andana ikus zitekeen, gehienak lanerako bidean han-hemenka zeuden urputzu erraldoiak ekidin nahian saltoka, balet dantzariak balira bezala.

Hotelean ginen ehunka realzaleen artean, ordea, zirrara nabaria zen. Guztiok elastiko, beroki nahiz bufanda txuri-urdinak jantzita, aurretik genuen egunaz ahalik eta gehien disfrutatu nahian.

Eguna argitzearekin batera, euriak ere alertzeraz egin zuen eta udazkenean mendiak onddoz bezala bete ziren Manchesterreko kaleak zale txuri-urdinez.

Gris esnatu zen hiria, kolore txuri eta urdinez tindatzen hasia zen. Han-hemenka topa zitezkeen zaleak, batzuk goizeko lehen garagardoa eskuetan lehen animo oihuak lau haizetara zabalduz, besteak Picadilly garden inguruan Euskal Herrian utzitakoei opariak erosten.

Eguerdi aldera, Shambles Square inguruko tabernak milaka zaleen topaleku bilakatu ziren. Hiruzpalau *pub* dotore dituen plaza txikia da eta bakoitzean gutxienez lau zerbitzari zeuden, festa egarritz hurbildu ginenok garagardoz asezteko prest. Kanpoan, Donostiako danborradako martxa edo *Goazen Erreal*a moduko oihuak entzun zitezkeen bertakoen arreta geureganatuz.

Manchesterren, arratsaldeko bost t'erdia zirenean abiatu zen Old Traf-

ford futbol zelairantz marea txuri-urdira. Milaka eta milaka zalek hiriko kale zabal haiek txiki bihurtzea lortu genuen.

Ametsen Antzokirainoko sei kilometroak kantatu eta oihu artean egin ondoren, iritsi zen ordura arte ondo gordetako sarrera atera eta zelai ospetsu hartara sartzeko unea. Lehen segundotik talde gipuzkoarraren aldeko oihuak nagusi, ikurrin nahiz bufanda txuri-urdinak dantzan harmaila artean... Ikusgarria izan zen bertan nagusitutako giroa.

Emaitza ona izan ez arren, ez zuen zaleon giro ona zapuztu. Jokalarietako esker ona, zaleok kantatutako Donostiako martxa, deabru gorriko zaleek jarraitzaile txuri-urdinok eskainitako txalo zaparrada... milaka pertsonen oroitzapenen zati izango dira.



Txokoak eta jendea

Aiako dantza taldea

Hasi berria da euskal dantza ikastaroa txikientzat eta batzuk jakin ez arren, lehen izan zen Aian dantza talde handi bat. Herriko emakumeek jositako arropa dotoreekin egiten zuten dantza. Argazkian jende ezagun ugari dago, tartean, gaur egungo alkate Igor Iturain. Gainontzekoak ezagutzen lan entretenigarria dago irakurleentzat!



» ORIOKO BASERRIAK



24. Dorretxe itxura

Orioko erdigunea atzean utzi, Kale Nagusian gora joan eta berehala dago Martinportu baserria, egungo jabearen arabera, notario-eskriturretan Miguel de Arguiñenea izenarekin agertzen dena.

Dorretxe itxura du, Berpizkunde garaikoak izan daitezken zenbait elementu baititu, besteak beste, erdi-puntuko arkuzko bi ate, arkudun leihoak eta albo batean bigarren pisurako sarrera diru-

dien harrizko eskailera. Berritua dago eta, jatorrizko eraikinaren ezker aldean berezko estetikari jarraituz diseinatutako zati bat gehitu zioten baserriari.

Dokumentuetan eraikuntza data zehatzik ez dagoen arren, Martinportuko ate gainean 1438 urtea ageri da baserriaren antzinatasunaren erakusgarri. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren *Inventario de Patrimonio Arqueológico* zerrendan agertzen da ustezko arkeologia gune gisa.

Gaur egun baserriaren jabe den familia 1920az geroztik bizi da hor. Jabearen aiton-amonak Aiatik etorri ziren Orioko baserri horretara bizi izatera, eta Ignacio Antonio Urkizuri erosi zioten baserria Francisco Berasategik eta Maria

Francisca Altunak. Gurasoak hiltzean Maria Berasategi alaba geratu zen Martinportun eta hara ezkondu zen Jose Ostolaza. Maria alargun geratu zen, ordea, eta Juan Maria Atorrasagastirekin, Rosarioren aita izango zenarekin, ezkondu zen bigarren ezteietan. Orain Rosario Atorrasagasti da, hain zuzen ere, baserriaren jabea.

Martinportu baserriko bizilagunek txerriak, behiak, ardiak eta astoa izan zituzten eta baratzean ere egiten zuten lan, baina gaur egun, baserri lanak guztiz utziak dituzte eta baserrian momentuz ez da inor bizi.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN |



“Pena da EAJ lantzen ari zen proiektua ezin jarraitu izana”

Noemi Ostolaza, Lourdes Salsamendi eta Joxe Angel Zaldua

Orioko EAJko kideak

Bi urte pasa ziren ekainean Beñat Solaberrietak alkate kargua hartu zuela eta EAJk alkatetza galdu. Legealdi erdia baino gehiago joan denean, EAJko **Noemi Ostolaza eta Lourdes Salsamendi** zinegotziekin eta Uri Buru Batzarreko **Joxe Angel Zalduarekin** egon gara egoeraren balorazioa egiteko.

TESTUA: KARKARA
ARGAZKIAK: IBAN EGIGUREN ETA
KARKARA

Beñat Solaberrietak 2011ko ekainean jaso zuen alkate makila Jon Redondoren eskutik. Legealdi askotako alkatetzaren ondoren, EAJ oposizioa pasatu da eta beste ikuspegi bat izan du Udalean.

Oposizio lanik egin gabeak ziren ordu-ra arte eta gurekin hitz egin duten EAJko ordezkarien ustez *gubernuan edo oposizioan egotea erabat ezberdina da; gobernuan norbera ari da gauzak sortzen; oposizioan, aldiz, etorri egiten dira eta etorri ahala bideratu daitezke edo ez, ekarpenak egin edo ez*. Oraingoan, hortaz, oposiziotik hitz egin digute.

Alkatetzan ez zaudetela badira bi urte. Nola bizi izan duzue alkatetza galtzea?

Alkatetzan ez gaude gure proiektuak babesik jaso ez zuelako, baizik eta hauteskondeak irabazita ere, demokraziak ematen duen beste aukerak baliatuz, bi taldek bat egin eta alkatetza kendu zigutela. Jendeak gure proiektua mamitu nahi zuen, beraz ez geunden ados gerta-



ELKARRIZKETA



ELKARRIZKETA

tutakoarekin. Aurreko legealdietan gure alderdiak egindako lan pila aintzat hartu zuten, baina ez dugu lan horretan jarraitzeko aukerarik izan. Herriak emandako babesari erantzun ezina sentitu genuen.

Eroso al zaudete oposizioan?

Oso deseroso. Alkatetza Bilduk hartu zuen plenoan esan zuten guri alkatetza kendu zigutela lana oso gaizki egiten genuelako, gure kudeaketa oso iluna eta diktatoriala zelako... Udalbatzar hartan entzundakoak entzun eta gero alkatetza hartu eta gure ekarpenak egiteko esan ziguten. Baina nola nahi zuten hori egitea, beren esanetan lana oso gaizki egiten bagenuen eta gure esperientziak ez bazien balio?

Zaila da oposizioko lana. Amorrua geneukan barruan, baina ez genuen nahi horrek herria oztopatzerik. Gure alde botoa eman zutenen hitzari eusteko ardua geneukan eta ez genuen nahi haserreak erantzukizun hori kentzerik.

Zuek alkatetzan ez egoteak asko eragin al dio herriari?

Askok. Herriarrek EAJ egiten ari zen proiektua lantzen jarraitzea nahi zuen. Etenak kalte egin dio herriari, inertzia gelditu egin delako. Guk nahi genuen Orio, herriak babesten zuena, ez da garrantuko. Baina oposiziotik nola gauzatu proiektu hori? Jon Redondo alkate zela egin genuen proiektuak Orion herri giroa sortzea indartu nahi zuen. Apenas daukagu industriarik, hirugarren sektoretik bizi gara eta sektore horri jaten eman behar zaio. Aizperroko industriagunea garatu, zerbitzu berriak sortu.... Baziren aurrera egin behar zuten hainbat gauza eta orain gelditu daude; pena da. **Hauteskunde aurretik azpiegiturretan hutsuneak sumatu zenituzten. Saihesbiderako Aldundian ez omen dago nahikoa diru.**

Saihesbidea oinarritzkoa da Orioko erdi gunearen izaera guztiz aldatuko litzateke-eta: oinezkoek lehentasuna izango lukete, giro atsegina sortu eta jendeak kalera ateratzeko motibazioa izango luke. Gainera, herriko beste kale soil bilakatuko litzateke Aita Lertxundi, N-634 errepiderik gabe.

Foru Aldundiak dirurik ez daukala entzun eta ezezkoarekin etxera bueltatu dira gobernukoak. Guri ezezkoak ez zigen balio eta ate joka joaten ginen berriz. Legealdia amaitu genuenean proiektua egin zegoen eta adjudikatze-ko oinarriak prestatzen ari ziren. Publikatu, enpresa bati eman eta egitea zen kontua, baina orain ez daukagu saihsbiderik; eta ez dugu edukiko. Mugikortasun batzordean alkateak esan zuen ez zegoela aurreikusita Aldundian proiektu hori.

“Zaila da oposizioko lana. Amorrua geneukan barruan, baina ez genuen nahi horrek herria oztopatzerik. Gure alde botoa eman zutenen hitzari eusteko ardua geneukan”

“Legealdia amaitu genuenean proiektua egin zegoen eta adjudikatze-ko oinarriak prestatzen ari ziren. Publikatu, enpresa bati eman eta egitea zen kontua, baina orain ez daukagu saihsbiderik; eta ez dugu edukiko.”

“Zaharren egoitza berritzailea izango litzateke eta gero eta zaharkituago dagoen gizarteari irtenbidea emango lioke. Osasuna ez ezik sentimenduen arloa ere aseko luke”

“Etxe hutsen IBIaren %100eko errekaruak diru-bilketa itxura handiago du alokairua bultzatzeko neurriarena baino. Gestioa etxebizitza hutsa zer den definitu gabe egin dute eta horrek jendearen haserrea eta erreklamazioak ekarri ditu.”

“Gaztelekuak martxa hartuta ludotekaren momentua da orain. Horren harira Goiko Kaleko Kakioneko etxean, Udaleri tokatzen zitzaizkion bi etxebizitzak saldu eta diru horrekin ludotekaren proiektua egitea proposatu genuen”

“Gazteekin lana egin behar da, baina toki hori ez da segurua. Era berean, gazteek proiektu bat egin behar dute, ez da izan behar erretzeko eta edateko baino ez den toki bat. Gazteek dinamika izan behar dute ekintzetarako eta beste gazteei gauzak emateko”

Zaharren egoitza zen buruan zeneukaten beste proiektu bat. Zertan da?

Adinekoentzat egoitza batera joateko momentua traumatikoa da eta oriotarrentzat, beste herri batera joan behar badute, are gehiago. Pertsona guztiok nahi dugu bizitzaren bukaera ona izatea eta hotza da senideen bisitak baino ez jasotzea. Norbere herriaz gain, ingurua, lagunak... ere uzten dira. Beraz, Orion egoitza lortzeko lanketa egin behar zela uste genuen.

Arkitekto batek borondatez egin zuen zirriborroa Arozena berreskuratu, hornitu eta egoitza egiteko. 200 leku baino gutxiagoko egoitzak ez ditu egiten gaur egun Foru Aldundiak, ez direlako bideragarriak; inguruan beste batzuk edukita are gutxiago. Ezezkoarekin ez genuen gelditu nahi, beraz, Matia fundaziokekin jarri ginen harremanetan erabilera anitzeko egoitza baten egitasmoa lantzeko. Horreala, hutsuneak dauzkan arloak osatzeko baliabideak eskaini nahi genizkion Aldundiari; esaterako, ezin duentzako tokiak. Gero hauteskundeak etorri eta asmo hutsean geratu zen dena.

Gizarte zerbitzu guztiak zentralizatzea aurreikusitua genuen teknikariei etekin gehiago ateratzeko. Tutoretzapeko etxebizitzaren erreferentzia izatea, eguneko zentroa hara aldatzea edo ezintasunak dituzten familientzako turismo irisgarriko egitasmoak abian jartzea ziren gure aukerak. Hori berritzailea izango litzateke eta gero eta zaharkituago dagoen gizarteari irtenbidea emango lioke. Osasuna ez ezik sentimenduen arloa ere aseko luke. Pena daukagu guk nahi genuen bezalako Oriorako egitasmoek ez dutelako aurrera egin.

Orio herri industriala ez izan arren Aizperroko industriaguneak krisi egoeran aurrera egingo al luke?

Saiakera egin behar zen, ez behintzat, krisia dela-eta alboratu. Aizperroko industriaguneak Orioko industria batzuk hara bideratzeko aukera emango luke. Azken batean deserosoak dira herrian eta egitura hobekia litzateke Aizperron. Gainera, Orion beste lanpostu batzuk sortzeko aukera emango luke. *Nasipa* eraikuntza enpresak erosi zuen Aizperroko gunea eta ez luke erosiko enpresek hara joateko interesik ez balute.

Etxe babestuen aipamena egin zenuen, baina gehiago egin behar dira ala daudenei beste irtenbide bat eman?

Orain dela gutxi egin duten etxe hutsen IBIaren %100eko errekaruak diru-bilketa itxura handiago du alokairua bultzatzeko neurriarena baino. Gestioa etxebizitza hutsa zer den definitu gabe egin dute eta horrek jendearen haserrea eta erreklamazioak ekarri ditu.



Guk alokairuzko etxebizitza sozialen beharra ikusi genuen. Bere garaian, tasatutako etxebizitzak eginez atera zitekeen etekina alokairuzko etxebizitzak egitera bideratu nahi genuen.

Ludoteka beharrikba al dago Orion?

Aurreko legealdian gazte plana egin genuen zegoena eguneratuz eta helburu berriekin. Haur eta gazteei beren aisialdia modu osasuntsuan eta erantzukizunez diseinatzen eta garatzen erakustea litzateke gure ardura. Horretarako, lehenengo ludoteketan erakusten zaie hezitzaileak gertu izanik; gero gaztelekue-tara pasatzen dira eta berek parte hartzen dute diseinuan; ondoren gazte lokalak eta gaztetxeak etorriko lirateke, modu autogestionatuan eta beren kaxara aisialdia garatzeko guneak.

Aurreko legealdian urgentea zen gaztelekua egitea, gazteek ez zeukatelako gunerik, eta behin martxa hartuta ludotekaren momentua da orain. Horren harira Goiko Kaleko Kakioneko etxean, Udalaritokatzan zitzazkion bi etxebizitzak saldu eta diru horrekin ludotekaren proiektua egitea proposatu genuen Orainek eta EAJk, baina etxebizitza horiek egiteko arazoak daude. Hirigintza batzorde batean esan zuten malgutasuna emango zietela prezioa jaitsiz, baina gaia ez dute berriz batzordera ekarri.

Etxeluzeraz gazteen esku jartzea zer iruditzen zaizue?

Okupazioa izan zenez, ez dator bat gure ideiekin. Hala ere, gazteek biltzeko, hausnartzeko eta eztabaidatzeko gune bat izan behar dute eta toki hori segurua eta egonkorra bada hobe. Beste gairen bat izan balitz behar bada ezezkoa eman genuke, baina gure borondatea azaldu dugu. Aurreko legealdian ordenazio barruan sartu genuen tokia eta jarraitzea zen asmoa, baina oraingo Udalgobernuak ez dizkigu gauzak erraz jarri erabakiak hartzeko orduan. Batzordetara daturik eta txostenik gabe aurkezten ziren; aurrez prezio bat esan eta gero udalbatzarrean beste bat; guk ezezkoa eman eta gazteak haserretu, berek heroi gisa azaltzeko. Gure ustez gazteekin lana egin behar da, baina toki hori ez da segurua. Era berean, gazteek proiektu bat egin behar dute, ez da izan behar erretzeko eta edateko baino ez den toki bat. Gazteek dinamika izan behar dute ekin-tzetarako eta beste gazteei gauzak emateko. Horrela eginez gero, gu laguntzeko prest gaude.

Aparkalekuen beharra ba omen dago, baina egin arren erabiliko al lirateke?

Neguan zero azpiko tenperaturak daudenean, toki asko izaten da hutsik; udan, ordea, gutxi. Momentu eta toki zehatzetan izaten dira arazoak, baina Dikeko di-

suasio-aparkalekuak, esaterako, oso ongi funtzionatzen du, baita futbol zelai aldamenekoak ere. Berriak eginez gero, erabilera kokapenaren arabera litzateke. Hondartzako aparkalekuak huts bezala kontatu arren, Bikamiotan bizi denak ez du autoa hondartzan utziko.

Orion, agian, hobeto antolatutako aparkaleku sistema beharko genuke egunero hiru udaltzain matrikulak apuntatzen egon beharrean, udaltzainak beste gauza askotarako daude eta. Beste disuasio-aparkaleku bat ere ez legoke gaizki, baina futbol zelai ondokoan eta Diken ia beti dago tokia.

Aparkaleku arazoak etxe bakoitzean auto bakarra zegoen lekuan orain bi edo hiru daudelako, eta jendea taberna edo denda pareraino joaten delako autoan.

Proposatu al diozue Bilduri futbol zelai azpiko aparkaleku itxiei beste irtenbideren bat emateko modurik?

Gure nahia saltzea zen eta horretarako tarteka kanpainak egiten genituen, baina saldu eta alokatu biak batera ezin dira egin eta alokatuz gero ez da etekinik ateratzen. Bilduk eta Orainek saltzeko eta alokatzeko apustua egin dute eta guk horrekin ez dugu bat egin. Uste dugu nahikoa geldi dagoela kontua. Bestalde, Udalak kontzesioan dauzkan kiroldegi azpiko aparkaleku irekiekin Arkupek txandakako aparkaleku egitea proposatu du, baina kostuak igo egingo lirateke. Aparkalekuen egoera kasuan kasu eta auzoz auzo aztertu eta horren araberrako irtenbidea eman nahi dugu guk.

Kiroldegia ireki zela badira 11 urte. Urteok pasatuta zer bait egin behar al da?

Hainbeste jende aurrera eta atzera dabilen tokian berritze lanak egiteko ordua da. Gainera, teknikariek esaten dutenez, hezeguneez –hidromasajea...– arazoak ematen dituzte eta gure proposamena zen hori saihesteko igerilekuaren aldera pasatzea, udan eguzkia hartzeko gune bat sortzea eta aurpegia ere garbitzea. Azpiegiturak oro har berritu egin behar dira: Karela txikitxo gelditu da, makina batzuk hondatuta daude... Orain tarifak igo egin dituzte eta jendea kexu da ezeren truke gehiago ordaintzen dutelako. Lehenengo inbertsioa egin, eta, igotzekotan, atzetik igo behar zituzten tarifak.

Kanposantua handitzea ere aurreikusita zegoen. Beharrezkoa al da hori gero eta jende gehiago errausten denean?

Hilerrian arazoak daude. Itsaso alderako dauden panteoi asko ezin dira erabili hezetan arazoak dituztelako. Lanak aprobetxatu nahi genituen azpiegitura hobetuz gaurko zerbitzu berrietara egokitzeko. Errautsak ezin dira edozein tokitara bota, beraz, gure ardura da errauts horientzat jendeari irtenbidea ematea.

ELKARRIZKETA

Planteatu genuen gaizki zegoena berri-
tu eta gune berri horretan errautsentza-
ko kolunbarioa eta sinestuna ez den jen-
deak hildakoei agurra egiteko plazaratxo
bat jartzea. Panteoi gehiagorentzat le-
kua ere egongo litzateke horrela. Izan
ere, oraindik jende askok eskatzen du
panteoia.

**EAJ agintean zela hainbat proiektuk
egin zuten aurrera, gehienak kanpotik
etorriak eta Udalak babestuak. Kofra-
dia berriari eta Interpretazio Zentroari
behar adina etekin atera al zaie?**

Interpretazio Zentroa gure proiektua
da, kanpo-finantziazioarekin lortua.
Turismo bulegoa han egotea ideia oso
ona izan da. Herrigune historiko polita
eta atsegina izanik turista guztiak hara
joatera *behartuta* daude eta herritarrok
ere turismo bulegoarekin edozein gestio
egitekotan Goikokalera joateko beste ait-
zakia bat da. Bestela ez gara askotan jo-
aten. Hala ere, herritar askok ez du ja-
kingo hor Santiago Bideko interpretazio
zentroa dagoenik, ezta Euskal Herriko
eta kosta bideko bakarra denik ere. Hor-
taz, duen balioa zabaltzea falta da.

Kofradia, berriz, Eusko Jaurlaritzare-
na da, arrantza ez baita gure eskumene-
koa. Horrelako kasuetan herrian ditu-
gun beharren berri ematen diogu dago-
kionari, sektorea nola dagoen esanez,
beren lan baldintzak egokiak izan daite-
zen. Saregileentzat, esaterako, sekulako
onura izan da kofradia berria. Zeharo ez-
berdina da soto ilunetan edo kalean jos-
tea edo oraingo lokaletan eroso egotea.
Hori nahikoa litzateke kofradia justifi-
katzeko. Lehen bapora bat etortzen ze-
nean sekulako kaosa sortzen zen he-
rrian-sareak atera, karroan sartu, soto-
ra joan eta deskargatu-; orain, aldiz,
atrakatu eta sareak han uzten dituzte.
Gainera, garabiak dauzkate horretara-
ko. Dauden bapora apurrentzat behar
baino handiagoa dela irudituko zaio
agian jende askoi, baina zerbitzua eman
ematen du.

**Epaitegietan egon da Muntoko proiektu-
a eta han merkatalgunea irekitzeko
asmoak ere eman du zeresanik. Zer dio-
zue horren inguruan?**

Merkatarien elkarteetatik Muntoko
planari egindako helegiteak ez dituzte
kontuan hartu. Auzitegiek Udalar-
i eman diote arrazoia, beraz, onartua
dago. Etxebizitza tasatuen partzela bat
eta Inmobiliaria Orioren lursail batzuk
kolokan gelditu dira, baina gainontzean
beste guztia ongi dago.

Arau subsidiarioak, berriz, baliogabe-
tuta daude, baina hirigintza plan oroko-
rra iristear denez, udalbatzarrean be-
rresten denean, Orioko hirigintza-
proiektuak zuzen egongo dira.

“Planteatu genuen gaizki
zegoena berri tu eta gune berri
horretan errautsentzako
kolunbarioa eta sinestuna ez den
jendeak hildakoei agurra egiteko
plazaratxo bat jartzea”

“Saregileentzat sekulako onura
izan da kofradia berria. Zeharo
ezberdina da soto ilunetan edo
kalean jostea edo oraingo
lokaletan eroso egotea. Hori
nahikoa litzateke kofradia
justifikatzeko”

“Ez dugu uste berritzeko beharra
dagoenik. Gainera, sekulako
dirutza da. Lehengo plan
orokorrean garatzeko gauza pila
daude eta, oso-oso mantso
garatuko denez krisi garaian,
saihestu daitekeen gastua da”

“Jendeak uste du Arraunetxe
Orio Arraunketa Elkartearena
dela eta ez da horrela. Zati
batean kluba dago eta
gainontzekoa denona da.
Teknifikazio zentroa egitea zen
gure alderdiaren ideia, baina
badirudi azkenean Arraunketa
Elkarte handi bat dela”

“Merkatarien elkarteetatik
Muntoko planari egindako
helegiteak ez dituzte kontuan
hartu. Auzitegiek Udalar-
i eman diote arrazoia, beraz, onartua
dago. Etxebizitza tasatuen
partzela bat eta Inmobiliaria
Orioren lursail batzuk kolokan
gelditu dira, baina gainontzean
beste guztia ongi dago”

**Plan orokorra berritzeari buruz ba al
duzue ezer esatekorik?**

Oinarri batzuk aurkeztu zituzten hiri-
gintzako azken batzordean eta izandako
helegiteak direla-eta, agian, tresna bat
izan nahiko dute seguru egoteko. Hala
ere, ez dugu uste berritzeko beharra da-
goenik. Gainera, sekulako dirutza da.
Lehengo plan orokorrean garatzeko
gauza pila daude eta, oso-oso mantso ga-
ratuko denez krisi garaian, saihestu dai-
tekeen gastua dela uste dugu.

**Kanpina legealdi honetan berri tu da.
Zuek buruan zenutenari erantzun dio?**

Bagenuen bungalowak jartzeko asmoa
kanpina denbora gehiago zabalik izate-
ko eta jendearen eskariari erantzuteko.
Guk ez genuke egingo urte batetik beste-
ra soberakinetik bi milioi hartuta. Hiru
ekitalditan egingo genuke inbertsio eta-
rako diruarekin soberakinak ukitu gabe,
baina aurtengo udararako ireki beharre-
an hurrengoan izango litzateke. 50 urte
pasatu ditu kanpinak bungalowrik gabe,
beraz, bat gehiago ez da ezer. Hala ere,
jarri dituzte eta jendea gustura egon da
bungalowetan. Estetikoki behar bada el-
karrengandik nahikoa gertu daude eta
belarra haztea falta da. Baina denbora-
rekin beste itxura bat hartuko du. Dena
dela, gustuen arabera da hori ere.

**Arraunetxe inauguratu dute eta he-
rriari azken urteotan egin den proiektu
garrantzitsuenetarikoa da gainera.**

Inaugurazioa egin zuten, bai baina hor
sekulako potentziala dago. Herrian mu-
gimendua sortzeko beste motor bat izan
liteke eta ez zaio behar beste etekin ate-
ratzen. Kirolera bideratu behar da, bai-
na gehiago indartuz: selekzio batek en-
trentzera etorri nahiko balu, esaterako.
Orio arraunean ezaguna da, baina gehia-
go lor lezake eta jendea Oriora ekartzeko
balioko luke. Azken finean hori nahi
dugu.

Jendeak uste du Arraunetxe Orio
Arraunketa Elkartearena dela eta ez da
horrela. Zati batean kluba dago eta gai-
nontzekoa denona da. Teknifikazio zen-
troa egitea zen gure alderdiaren ideia,
baina badirudi azkenean Arraunketa El-
karte handi bat dela eta ez da guk nahiko
genukeen moduan erabiltzen. Udali-
kirol teknikaria aditua da teknifikazio
zentroetan eta bereziki prestatu da horri
ahalik eta etekin handiena ateratzeko,
baina uste dugu ez dela kontuan hartu.

Batzuetan beldurra ematen digu gau-
za handiak antolatzeak. Badakigu mare-
ak kontuan hartu behar direla, baina hor
edozein txapelketa antolatu daiteke eta
askok inbidia izango liguke.

Herriak beste etekinik atera diezaioke?

Badaude arrauna aisialdian egiten du-
ten piraguistak, ontzia eta arraunak han



uzten dituztenak. Aurreko batean, piraguetara iritsi ezinda gelditu ziren, atea ireki ezinik. Gure ustez ez du federatuentzat bakarrik izan behar, kirol hori herritar guztien eskura jartzeko baizik.

Bestalde, klubekoekin eta beste federazioekin hitz egin beharko litzateke eta gaia landu. Arraunetxeko gimnasioa herrira zabaltzea beste aukera bat litzateke. Erabiltzaile arruntentzat beharbada ez, baina herriko beste talde batzuk, sofbolekoak, adibidez, kiroldegira entrenatzera joan ordez Arraunetxera joatea ez legoke gaizki kiroldegiari arnas pixka bat emateko. Egon litezke irtenbideak eta horrek lanketa eskatzen du, Arraunetxe baino kirol etxea izateko.

Arraunetxeko urteko gastuari aurre egiteko zer asmo zenuten?

Kirol Kontseilu Goren-etik jasotakoa baliatzea. Gastuak berdinduko ez lituzkeen arren, zuloa ez litzateke handia izango. Beraz, ordaindutako zerbitzuei ahalik eta erabilera handiena emanez egin behar litzateke aurre beste gastuei. Utzi genuenean bideragarritasun plana egina zegoen eta orain 12.000 euro ordaindu dituzte gauza bera esaten duen beste plan bat egiteko.

Udalera bueltatuta, alderdien artean badiardi ez dagoela elkarlanik. Zergatik?

Gure esanak eta iritziak ez dituzte kontuan hartzen eta horrek ez du elkarlanerako girorik sortzen. Guri esaten ziguten lau zinegotzirekin hori egiten genuela; orain zazpirekin egiten dute gauza bera

“Arraunetxeko gimnasioa herrira zabaltzea beste aukera bat litzateke. Erabiltzaile arruntentzat beharbada ez, baina herriko beste talde batzuk, sofbolekoak, adibidez, kiroldegira entrenatzera joan ordez Arraunetxera joatea ez legoke gaizki kiroldegiari arnas pixka bat emateko”

“Batzordera ekarpenak egiteko asmoz joan eta lehenago elkartuta dena adostua dutela esan izan digute. Dinamika horrek ez du kolaboraziorako girorik sortzen. Ahal dugun guztietan gure iritzia ematen dugu, baina batzorde gehienetan nahikoa lan izaten da horretarako”

“Politika orokorrean Orainek ez du oinarririk, beraz, batzuetan Bildurekin joan daiteke eta hurrengoan gurekin. Legealdi honetan Orain da Udaleko giltza eta irekita egon behar dugu beti denekin hitz egitera”

eta horrek haserrearazten gaitu. Batzordera ekarpenak egiteko asmoz joan eta lehenago elkartuta dena adostua dutela esan izan digute. Dinamika horrek ez du kolaboraziorako girorik sortzen. Ahal dugun guztietan gure iritzia ematen dugu, baina batzorde gehienetan nahikoa lan izaten da horretarako. Hortaz, zertarako ekarpenak egin gero kontuan hartzen ez badira.

Hemendik bi urtera alkatetza lortzeko ituna egin beharko bazenute, prest egongo zinatekete?

Negoiazteko gaitasuna aurreko legealdian erakutsi genuen: guk lau zinegotzi genituen eta zazpi, beste taldeetakoak ziren. Denekin negoziatu behar zen aurrera egiteko. Nahiz eta beti adostasunera iritsi ez, hainbat proiektu onartu ziren: teknifikazio zentroa, Muntoko plana, Ikastolako eraikin berria... Legealdi honetan, edozein proposamenetarako irekita azaldu gara negoziazio mahaian, baina, helburua EAJ gobernutik kentzea zen eta lortu dute. Badakigu zein diren gure lerro gorriak eta noraino iritsi gaitzkeen, beraz, negoziatzera lasai joaten gara. Bilduk ere badu bere idearioa, baina politika orokorrean Orainek ez du oinarririk, beraz, batzuetan Bildurekin joan daiteke eta hurrengoan gurekin. Legealdi honetan Orain da Udaleko giltza eta irekita egon behar dugu beti denekin hitz egitera.

Batzordeburu izatea ez zenuten onartu. Alkatetza hartu zutenean jokaera txa-

ELKARRIZKETA

rrak, iluntasuna, partaidetzarik eza... aurpegiatu zizkiguten eta gero batzorde buru jartzeko esan lehengo jokamoldeen aurka eginez. Gainera merkataritza eta hezkuntzako batzordeak eskaini zizkiguten, beste zerrendetan merkataria eta Ikastolako jendea joan denean. Nola hartu guk ardura? Egin ziguten proposamena guk ezezkoa esateko izan zela uste dugu. Onartuz gero, eztabaida eta haserreak baino ez lirakeke egongo. **Udalbatzar batean altxa eta joan egin zineten. Beste batera ez zineten joan eta hainbat batzordetara ez zaretela azaldu ere esaten dute. Zuen boto emaileentzat ezal zaizue errespetu falta iruditzen?** Gure haserrea adierazteko modua izan da. Aurrekontuen harira gertatu zen bat. Aurrekontua Udalak daukan tresnarik garrantzitsuena dela uste dugu, hor islatzen baita proiektu guztia, zer eta nola egingo dugun. Aurrekontua eman ondoren, beste hainbat dokumentu jaso genituen aldaketekin, baina zehaztu gabe. Hiru egunetara udalbatzarra egin zen aurrekontuari oniritzia emateko, baina batzordera gauza bat eraman eta gero udalbatzarrean beste bat onartu zen. Guk abuztuan zirriborroa egiten genuen, gero gainontzeko alderdien ekarpenak jaso, negoziatu eta azken zirriborroa aurkezterakoan zerbait onartu ez bazen arrazoiak adierazi. Hiru hilabete-ko lanketa egiten genuen. Beraz, 15 egunean azalpenik gabeko zortzi zirriborro jasotzea guri barre egitea zela iruditu zi-

“15 egunean azalpenik gabeko zortzi zirriborro jasotzea guri barre egitea zela iruditu zitzaigun.

Ondorioz nahiago izan genuen udalbatzarrean altxa eta gero gure botatzaileei azalpenak ematea. Aurrekontua bezalako dokumentu garrantzitsuarekin egiten ari zirena, errespetu falta zen”

“Irizpideak denon artean jarri ondoren politikook erabakiko dugu talde bakoitzari zer eta zenbat eman. Gaizki irudituz gero, guk entzungo ditugu kekek, baina ez zeuden tokian liskarrak sortzeak beldurra ematen zigun.”

“Ezingo dira proiektu berriak martxan jarri, arazo gehiago izango dira finantzazioak lortzeko, baina orain da garaia, herritarrak kargatu beharrean, proiektu edo ekimen berezietarako finantzazio modu berritzaileak bilatzeko”

“Beste administrazio batzuk nola dabilzan ikusita, Orioko Udala zoragarria da euskarari dagokionean”

tzaigun. Beraz, nahiago izan genuen batzarrean altxa eta gero gure boto-emaileei azalpenak ematea. Aurrekontua bezalako dokumentu garrantzitsuarekin egiten ari zirena errespetu falta zen.

Bestalde, urriko goiz batean dei bat eta e-mail bat jaso genituen udalbatzarreko deia egingo zutela esanez, eta gure alderdiko zinegotziori hitz egiteko astirik eman gabe egin zuten deialdia. Urtebete da ez dugula ohiko udalbatzarrik egin; eta jakinez gero udalbatzarrik hilabete-ko azken ostegunetan izango direla antolatzeak aukera izango genuke.

Batzordeetara ez agertzearena ordu-tegi kontua izan zen batean, batzordeak 19:00ak ondoren izatea eskatu eta 18:00etan egiten dituztelako; ez ginen iritsi; bestean zinegotzia ordurako iritsi arren bilera atzeratu egin zen eta gaixorik zegoenez, itxaron gabe alde egin zuen. Beste batzuetan egunak aukeran jarri eta guk ezin dugun egunetan egitea adosten dute. Beraz, egoera pertsonalen erabilera maltzurra egiten dute.

Gure boto emaileak beharbada ez dira eroso sentituko gure jokaarekin eta ahalgina egin behar dugu gure egoeraren berri ematen. Uri Buru Batzarrik egin zigun kritika, izan ere alderdian Orion 100 afiliatu daude, baina gero ulertu dute guk hartutako erabakia.

Herritarrek parte hartzeko aholku batzordeak beharrezkoak al dira?

Mahaira etorritako taldeek bere ustez behar luketen diru laguntza hartuz gero,





arazoa konpondu ordez sakontzeko arriskua izango genuke politikook. Zaila da taldeen arteko elkarbizitza, batek beti usteko duelako besteari gehiago eman diotela Udaletik. Irizpideak denon artean jarri ondoren politikook erabakiko dugu talde bakoitzari zer eta zenbat eman. Gaizki irudituz gero, guk entzungo ditugu kexak, baina ez zeuden tokian liskarrak sortzeak beldurra ematen zizun. Hala ere, badirudi ez dela horren gaizki joan. Lana egin behar da denek parte hartu, ekarpenak egin eta beren ahotsa hor dagoela sentitzeko. Hala ere, norbait aholku batzordera joan, beti pertsona berek hitz egiten badute eta horiek esandakoa baino ez bada kontuan hartzen, hurrengoan ez da joango. Boluntarioak mila gauzetan egoten dira eta jende asko ez da aholku batzorde bakarrean ere egongo. Gauza interesgarria da, baina denok parte hartzeko arduraz eta ondo zainduz egin beharrekoa.

Krisiaren aurrean zein da Udalaren egoera?

Udalak sarrera gutxiago izango ditu finantza fondotik obra lizentziengatik. Gehiago kostatuko zaigu aurrekontua orekatzen, baina nola hala moldatuko gara. Gehiago kezkatzen gaitu herritarrek krisiaren ondorioz sufritzea. Zer egingo horren aurrean eta tasak eta zer-gak igo dituzte gure aurrekontua orekatzeko. Krisiaren eragina herritarrek jasaten ari dira eta politikook pertsonen zerbitzura egon behar dugu. Ezingo dira proiektu berriak martxan jarri. Arazoak izango dira finantzazioa lortzeko. Herritarrek kargatu beharrean, proiektu edo ekimen berezietarako finantzazio modu berritzaileak bilatzeko garaia da orain.

Bilduk alkaltetza hartu zuenean alderdi politikoei ordaintzen zaiena jaitea erabaki zuen. Zer iruditzen zaizue?

Alderdi bakoitzak dirua jasotzen zuen zinegotzi kopuruaren truke. Hori jaitzi eta denoi kopuru bera ematea erabaki zuten, sei zinegotzi edo bi izan, eta hori bidegabekeria iruditzen zaigu. Guk egoitzako gastuak ordaintzera bideratzen dugu, baina bi zinegotzi dituenak ez du lokalik, beraz, zertan gastatzen dute dirua? Hileko kopuru guztia hartu eta proportzionalki banatzea proposatu genuen guk. Udalari berdin kostatuko litzaioke. Alderdiak bere programa prestatu behar izaten du, lana eskatzen du horrek eta diru hori lana aitortzeko modua litzateke.

Murritzaketek zertan eragin dute Udal jardueran?

Malgutasuna eta proiektu berritzaileak egiteko aukera galdu da. Baina ez nuke esango krisia dela-eta egin gabeko proiektu esanguratsurik dagoenik.

Dena dela erritmoa asko jaitzi da. Gero eta batzorde bilera gutxiago egiten da eta udalbatzarretako gaiak gutxi eta arinak dira. Batzordeetan gai pisutsuak aurkezten genituen lehen; gauza txikiak eguneroko jardunean egiten ziren. Orain bulegoan zer egin ere ez dugu jakiten askotan. Aurreko legealdian zereginak geneuzkan etengabe. Horrekin ez dugu esan nahi orain gobernuan daudenek lanik ez dutenik.

Ez badirudi ere, krisiak euskararen erabatu eragina. Zuen lehentasunen artean sartuko al litzateke?

Guretzat euskarak zeharkakoa izan behar du; gainontzeko alor guztietan izan behar du presentzia eta hori bermatzea da lehentasuna. Ez dakit diru gehiago gastatu behar den edo dauzkagun baliabideak birplanteatu behar diren etekin gehiago ateratzeko. Beste administrazio batzuk nola dabilen ikusita, Orioko Udala zoragarri dabil euskararen arloan. **Dirurik ezean larri dago euskarazko prentsa ere. Honen aurrean zer egin daitekeela uste duzue?**

Ezertan hasi baino lehen ez diogu inongo gairi ezezkorik ematen. Beraz, jakinik euskarazko hedabide bat izan behar dugula – kalitatezkoa, garbia, inpartziala... –, eta beti izan dugula, gai hori ere hitz egitekoa izango litzateke eta gero ikusiko genuke KARKARARI lagundu diezaioketun ala ez eta nola.

Sekula baino oriotar gehiago dago Eusko Jaurlaritzan -zuen alderdikoak-horrek zein onura ekarriko dio Oriori?

Oriko Jaurlaritzako ikuspegian dago eta ekarpenak egingo ditugu ea kontuan hartzen dituzten. Egindako lan onari baliua eman diote eta hona emaitza.

Udalean oposizioko buru denak nola egiten ditu bateragarri Jaurlaritzako lana eta herriko kargua?

Bera da taldeko burua eta gurekin fidatu da. Bere lanak eskatuta batetik bestera ibiltzen da, baina teknologia berriei esker sarean, internet bidez, lan asko egiten dugu. Zailagoa izan arren moldatzen gara eta elkarren berri izaten dugu.

Legealdi erdia baino gehiago pasatu da. Nola aurreikusten duzue falta dena?

Lan eginez. Jendearekin egon, entzun eta haien beharrak ezagutzeko ahalik eta ekarpen gehien egingo ditugu. Hurrengo hauteskundeak prestatzen hasiak gara. Urtebeteren buruan prest egon behar dute taldeak, beharrek, horientzako irtenbideak eta programak. Hala ere, gure proiektua azken hauteskunde programaren arabera da eta gaur egun ere horretan sinesten dugu. Beraz egungo egoerara egokitu behar dugu proiektu ona geneukalako eta hortik jarraitu behar dugula iruditzen zaigu.

ORIO ESTILORA KALITATEZKO MARKA

Oriora kanpotik jendea erakaritzeko zuten *Orio Estilora* marka. Bisiguarekin hasi, txuleta eta erreboiloa gehitu eta berriz bisigura mugatu da. EAJkoen ustez ez da nahikoa. *Orio Estilora*ren harira antolatuko diren ekintzekin jendeari Oriora etortzeko aitzakia jartzeaz gain, herritarrek ere kalera ateratzeko modua dela uste dute. *Sanpedroak eta sanikolasak sekulakoak izaten ziren garai batean eta ateratako diruarekin nola hala pasatzen zuten urtea. Gaur egun jende gutxiago ibiltzen da eta ostalari eta merkatari askok horrekin pasa behar izaten du urtea. Gure nahia da festa egun batzuk antolatzea herritarra gehiago kalera ateratzeko eta kontsumitzeko. Ostalarien urte osoko lana konpentsatzeko adina lortzeko modua litzateke. Udalarentzat inbertsioa den arren herriari ematen dion etekinak merezi du.*

Bisigu festarekin eta parrillekin hasi ziren. *Norbaiti oriotarrak garela esan eta askok gogoratzen du Oriora etortzen zela bisigua jatera.* Hori prestatzeko *Tolosa Gourmet*koen laguntza izan zuten eta hortik etorri zen txuleta festa antolatzearena. Ondoren, *Orio Estilora* garatzeko eta udaberri aldean erreboiloarena egin zuten. *Oraindik jendeak galdetzen du ea noiz egin behar ditugun berriz, Bisiguarenaz gaindiko beste festak.*

Berek antolatzen zutenean, jendeak kontsumoa plazako gunetik kanpo ere egin zezen saiatzen zirela diote EAJkoek. *Jatorduetan edariak bai, baina koparik ez genuen ematen. Olagarroarekin ere Riberoako ardoa eta ura baino ez ziren ematen, herriko tabernetan ere kontsumi zezan jendeak.*

Jatea denok gustuko izan arren, gastronomia alorretik kanpora ere eraman nahi dute *Orio Estilora*. Oteiza artista oriotarra, Orioko arraunketa... Gauza asko egin daitezke marka horrekin herriko izaera islatuz. *Ekimen bat Orio Estilora-ren baitan joatean kalitatezkoa eta polita izango denaren eta ondo aterako denaren ziurtagina ematen dio jendeari Oriora lasai etortzera eta gozatzea gonbidatuz.*



Parot doktrina

Nire irakasle batek esaten du zurittoa eskuan dugula, denok garela abokatu eta mediku. Horri jarraituta, eta azken egunotan entzundako hainbat zentzugabekeriak bultzatuta, bolo-bolo ibili den gai bati buruz hitz egitera nator gaur: Parot doktrinaz.

1973ko Espainiako Zigor Kodearen arabera, pertsona bati jarritako kondenaren edozein izanda ere, kartzelan egin beharreko denbora gehienez 30 urtekoa izango zen. Horrez gain, bertan ezarritako hainbat baldintza betez gero, onura batzuek gozatzeko aukera zegoen, 12 urtera arteko beharpena lortzeraino. Beharpen hori gehienezko kondenari egiten zitzaion, eta ez ezarritako zigor errealarari. Beraz, posible zen 18 urtez espetxean egon eta kondena beteta izatea, auzitegiak jarritako kondena askoz ere luzeagoa izan arren.

1994an aldaketa etorri zen, eta egun indarrean dirauen Zigor Kodeak 1995etik aurrera egiten ziren arau-haus-

te penaletarako zaharra ordezkatu zuen. Kondenen beharpena lortzeko baldintzak ere aldatu ziren, gehienezko zigorra 40 urtera igo, eta lehengo onura batzuk desagertu ziren.

Bestalde, auzitegiek arauak interpretatu eta aplikatu egiten dituztela esan behar da, aplikazio horretan jurisprudenzia sortuz. Jurisprudentziak ez du lege izaerarik, baina horren lege-kontraketasuna adierazten ez den bitartean, edozein auzitegi goragoko organoek jarritako horri jarraitu beharko dio, eta egin ezean, justifikatu. Auzitegi Gorena da horretan diharduen goren organoa.

Espainiako zuzenbidearen printzipio nagusietako bat da legeen atzeraeragintasun eza errudunaren kalterako: ez da posible delitua gauzatu den unean indarrean ez dagoen neurri bat aplikatzea. Dena dela, 2006an Auzitegi Nazionalak erabaki zuen –eta Auzitegi Gorenak berretsi– 73ko zigor kodeko onurak gehienezko kondenari beharrez,

kondena errealarari aplikatzea. Henri Parot zen hori aplikatu zitzaion preso, 90eko hamarkadan kondenatua, eta hortik dator izena.

Epai horrek jurisprudenzia sortu zuen, eta ordutik hainbat motako preso askori aplikatu zaie. Espainiako Auzitegien bidea agortu eta legediari jarraituz, Europa eraman zuen auzia preso batek, kondenaren berrikuspenaren doktrina aplikatzearen kontra eginda.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebazpen definitiboa eman zuen urriaren 21ean, eta hortik sortu da zala-parta. Espainiak Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 5.1 eta 7. artikulua urratu dituela ebatzi du, neurria atzeraeragintasunez aplikatzea egotzita, etorkizunean hori berori egitea debekatu, delituak gertatu eta une horretan indarrean dagoen sistema soilik aplikatzea baimenduz.

Iritzia ematea guztion eskubidea da, baina demagogia egitea ez da zuzena.



URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
Tel: uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

SU KIA
TARDINA JATEKIA
On aghi eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!
- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA
TF: 943 882 129
ARRAZKORRIKAL, 1. BARRIOA

PIZZERIA

KALETA
ARRANTZALE NALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 48
TF: 943 83 09 84 Fax: 943 24 87 15

HAIKUR ETXAK HELDUENTZAKO JATEKIAK
ROSA
CARBINE ARRILLAGA
ARRAZKORRIKAL, 2 - TEL. 943 13 13 43
10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.
Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01. 656 78 29 99

LOBETXU JATEKIA

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

tel/fax: 943 89 00 69
Bidea kale 4. 20.50 JARAJITZ

URBIDE
ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU, ERAKUSKETA
Plaza bakoitzeko bereziki. 943


AIRIATZA moodus
Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

Adarretatik helduta

Shua Larrañaga: Ikaslea eta zerbitzaria.

Zorigaiztoko belaunaldia

Eusko Jaurlaritzak maiatzaren lehen argitaratutako datuak: *gazte lan-gabetuen zifrak, Euskal Herriko populazioaren langabezia tasa bikoizten du; 2007an EHUko gazteen %5,7a langabezian zegoen, 2013an zifra %28,7koa da, bost aldiz handiagoa.* Datuak, analisiak, estatistikak... nazkatuta gaude!

Batxilergoa amaitu genuen eta ametsez betetako gazteak ginen. Asko ikasle onak ginen eta unibertsitatera joatea edo erdi-goi mailako ikasketak egitea erabaki genuen. Ilusioz hasi ginen, ametsez josi genuen gure etorkizuna eta desio guztiak lortzeko lan asko egin behar izan genuen.

Aholku hartzaileen belaunaldia garena pentsatzen dut. Lehendabiziko urteetan: *zuek ikasi egin behar duzue, zuen burua prestatu eta horrela geroaldi on bat izango duzue; garai honetan ezinbestekoa da hizkuntzak ikastea: ingelesa, alemana... A, eta txinera!* Karrera amai-

tzerakoan: *krisi hau dela-eta, praktika on batzuk bilatzea da xedea.* Lizentziatu eta bi urtera: *pazientzia izan behar duzue, segi ikasten edo hemen ez duzu ezer lortuko, beraz, segi atzerrira...* Aholku hartzaile xumeak bihurtu gara, ez dugu hitzik, baina guk bakarrik dakigu urteak pasa eta pasa, eta egun guztiak berdinak direla.

Aurreko belaunaldiei trenea pasatzen zitzaie, abilak eta ausartak baziren, hura hartu eta beraien etorkizuna eraikitzen hasten ziren. Guk urteak daramatzagu estazioan eserita, eta ezta trenik pasatzen; ez trenik, ez auto-rik ezta zaldiek bultzatutako gurdirik ere.

Aholkuak aholku, goizero kafesne batetik interneteko lan eskaintzak begiratzen ditugu; arratsaldean, ikasi egiten dugu; gauean pelikula bat ikusten dugu... eta hurrengo egunean, berdina! Frustrazioz jositako gazteak gara. Orain dela hamar urte genituen ametsak desagertu dira, eta errealitatearekin talka egin dugu.

Ez dugu irtenbiderik, ez dugu itxaropenik eta ez dago iraultzaren ideologiarik. Sistemaren txotxongilo huts bihurtu gara; eguneroko agertokian buruz ikasitako bi esaldi esan eta esperantza zipitzik gabe, berriz ere, ohera joaten gara; autokontsolatuz: *ez dut lanik onena, miseria bat kobratzen dut, lan egoera txarra dut; nire lanaldia baino bost ordu gehiago lan egin behar izaten dut... baina lana dut, pentsatzen dugu denok.* Gainera, ezin dugu kexatu, lan kaxkarrenaren aurrean ere ezin dugu ezer esan: *Aizan! Behintzat lana dun eta eskerrik asko eman beharra daukan.*

Eskerrik asko? Zergatik eskerrik asko? Bost urtez ikasi genuen, ingelesez edo frantsesez moldatzen gara, atzerrira irten gara... Ez dugu ezer lortu eta ez digute gure etorkizuna sortzen utzi! Gainera, eskerrak eman behar al ditugu? Belaunaldi galdu bihurtu gara; lokartutako aholku hartzaile, ixil eta zorigaiztoko gazteak gara; eta bai, eskerrik asko eman behar diegu gure desio eta amets guztiak pikutara bota dituzten eliteetako madarikatu guztiei.

Ez dugu irtenbiderik, ez dugu itxaropenik eta ez dago erreboluzioaren ideologiarik. Sistemaren txotxongilo huts bihurtu gara; eguneroko agertokian buruz ikasitako bi esaldi esan eta esperantza zipitzik gabe, berriz ere, ohera joaten gara; autokontsolatuz: ez dut lanik onena, miseria bat kobratzen dut, lan egoera txarra dut; nire lanaldia baino bost ordu gehiago lan egin behar izaten dut... baina lana dut, pentsatzen dugu denok

Nire honetan
Onintza Aiestaran

AMEN

Pasa den asteburuan bihurtako pasarte bat ekarri nahi dut lerro hauetara. Gure etxean tradizioa da Santu Guztien Egunean gure hildakoei bisita egitea eta meza entzutera joatea, eta aurtun ere txintxotxintxo ohiturari eutsi diot.

Goizean goiz jaiki, elizara joateko igandetako arropa jantzi eta Aiara joan nintzen senideekin 10:30eko meza entzutera. Egari zor, aspaldian elizara joan gabea nintzen, baina ezin ba hutsik egin urteroko hitzorduari.

Aiako elizara sartu, eta bertan izan nintzen azken alditik ezer gutxi aldatu zela konturatu nintzen. Dena bere tokian zegoen, baina hori bai, azken aldian baino jende gehiago zegoen. *Hire moduko batzuk ere etorri ditungaur* pentsatu nuen nire artean.

Barka nazala Unai Manterola apaizak, baina berak esandakoari kasu gutxi egin nion, batere ez ia. Ohiturari eustea kontu bat da, baina arreta jartzea...

Elizkizunean zehar deigarria egin zitzaidan Aiako elizako koruak hainbat kantu latinez abestea. Aiako koruak oso ongi abesten du eta gus-tura entzun nuen haien saioa, baina latinez kantatzeak belarriko mina egin zidan. Latina zer da ba euskara baino kultuagoa? Zergatik latinez?

Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu. AMEN.



mauka
PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943. 572083
FAX - 943. 571190
Lasenjo@hotmail.es

INES ASENJO
IBAI ONDÓ 13
20610 ORIO

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu



KARKARA

943 83 09 84 aita lertxundi, 36
ORIO

PUBLIZITATEA

MASAJISTA
ANDATZA 22, A BEHE-SOLAIRUA, AIA

- ETXEKO ZERBITZUA
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- MASAJE ERLAXAGARRIA
- KIROL MASAJEA

Tel.: 676 198 904

obrak proiektuak errefarmak errehabilitazioak txostenak lizentziak

XS arkitektura

borja agirresarobe lopetegi 635 73 17 22

ITSASADARRA, S. L.
 Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria
 finka administratzailea
 gestoria
 enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 86 itsasadarra@itsasadarra.com
 Ibai Ordo 4, behea, 20310 Orrio

INDO
 Garraio frigorifikoa
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskeogia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Igo zaitez haize berrietara!

Galerna I

943890416 - 677149934
 galerna1onio@hotmail.com

Kinkladenda- Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
 Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
 UGARREN TXARTELAREKIN

uranga
 autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari Kalea 13-15
 ORIO
 943 63 38 75

TANATORIO ZARAUTZ
 EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiaroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskelak, trinitzioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
 Tel: 943 89 49 37 / Faxa: 943 89 49 41
 e-mail: harnespil@harnespil.net

bodegas ERRASTI, S. L.

Eskuaderrako banatzailea
 Zudugarai, Getariako txakolina
 Ilagares, ardo gorri nafarra
 Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain
 Gailur eta Ardandegi,
 Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46. ORIO • 943 83 03 86 / 83 89 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

LURDES
 ANTIPIESTI

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

azkue
 karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orrio
 Tlf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

ARISTERRAZU
 jatebxea

Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

He aupindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
 Tel. 943 13 47 29
 ORIO

ARKAITZ
 Taberna

Pintxoak,
 plater konbinatuak
 eta ogilarteko mundialak

ABESLARI KALEA 4 TEL: 943 83 16 57

Gaia emanda Mendi tontorretako gurutzeak

Hernio mendiaren gainean ezin izango da hildakoen omenezko gurutzerik jarri Herniopeko udalek hala erabakita. Zer iruditzen zaizu mendietan gurutzeak jartzea?

Hernioko gurutze-bidea

Gazterik hasi nintzen mendian, eta mendizale bihurtu nintzen aspaldi. Gustuko dut mendian ibiltzea eta ahal dudan guztietan joaten naiz gailurrez gailur nahiz leporik lepo.

Ez dakit noiz izan zen Hernioko gailurrera igo nintzen lehen eguna, baina gogoan dut hango gurutzeek sortu zidaten inpresioa. Zer egiten dute gurutze hauek guztiek mendian? Zertarako ekarri dituzte honaino? A ze lan makala hartu duten! pentsatu nuen kolpera. Ez al zegoen leku hoberik hauek jartzeko? Burutazio hauek izan nituen orduan eta, harrezkero, joan izan naizen bakoitzean, gero eta zentzu gutxiago aurkitu diet hango oroigarri eta gurutzeei.

Domusantu eguna pasa berritan gaia pil-pilean daukagu. Hernio mendia gurutzez josia dago eta badirudi kopurua ere, mendizaleok aldapan gora bezala, igo egin dela azken aldian, gaur egungo panorama ikusita.

Hildakoen alde jarri dituzten gurutze, plaka eta gainontzeko oroigarriak ugartzen ari dira mendietan, baina Hernio da horren adierazle nagusia. Arazoari aurre egiteko inguruko Udalek gurutze gehiago ipintzeko debekua jarri dute eta lehengoak kentzea aurreikusten dute urtebeteko epean. Adierazpena inguruko sei herrietako Udalek egin dute, Aia-koak barne. Arazoa, baina, ez da Herniokoa soilik. Beste mendi batzuetan ere izugarri ugartu dira azken aldian horrelako oroigarriak eta Gipuzkoako Foru Aldundia ere horren aurrean zerbait egitea aztertzen ari da.

Orain dela pare bat aste Hernion egon nintzen lagun batekin eta gurutzez josita dagoela ikusirik nire haserrea adierazion nire lagunari. Honi ostera, ondo iruditu zitzaion eta esan zidan bere herriko mendi taldearen gurutzea inork kentzerik ez lukeela nahi. Pentsa, herri bakoitzeko familiek eta mendi taldeek gurutze bana jarriko balute nola egongo litzatekeen mendi gaixoa! Eta gurutzeak gutxi balira, orain plakak eta metalezko ikurrin haundi bat jarri dituzte gailurrean. Zertarako hainbeste oroigarri? Errautesak zabaltzea ez al da nahikoa? Zergatik egin hainbeste zauri mendiari?

Mendian oroigarriak, gurutzeak eta postontziak jarrita hilerri edo museo bihurtzen da urteak aurrera joan ahala. Mendia maite duenak ez du behar oroigarriarik belar eta harri artean. Mendizaleek ez lukete nahi mendia zauritzerik, hil eta gero bere oroigarria jarri. Kontraesan galanta da hori. Errautesak bertan utziz nahikoa da

Hildakoak gogoan izateko hilerrietatik kanpo jartzen ari dira hilarriak eta oroigarriak. Gehienak mendi gailurretan. Hildakoaren oniritziarekin eta baimenarekin? Ezetz esango nuke. Hernio maite zuelako familiakoek erabaki dute seguru asko oroigarria gailurrean jartzea. Zer esango luke berak? *Nik mendiak maite ditut, baina besteak beste horregatik ez nuke nahi nire ahaideek horrelako oroigarriak jartzetik nire oroimenez.* Betirako maite izango gaituztenentzat gu izango gara gure izanaren oroigarria; ez oroitarri, gurutze edo plaka dotoreak.

Mendian oroigarriak, gurutzeak eta postontziak jarrita hilerri edo museo bihurtzen da urteak aurrera joan ahala. Mendia maite duenak ez du behar oroigarriarik belar eta harri artean. Mendizaleek ez lukete nahi mendia zauritzerik, hil eta gero bere oroigarria jarri. Kontraesan galanta da hori. Errautesak bertan utziz nahikoa da.

Utzi dezagun bakean mendia. Ez dezagun hilerri bihurtu ez Zelatun, ez Hernio, ez Urbia, ez Aizkorri, ezta antzerako beste txokorik ere. Mendiak belarraz, lurraz, zuhaitzez, egun eguzkitsu zein euritsuez eta arnasa sakon hartuz bidezidoretan pauso sakonak emanez goraino iristeko, paseatzeko eta gozatzeko txokoak dira.

Mendiak biluzik daude ondoen: ez gurutzerik, ez monumenturik ezta ikurririk jarri gabe.

Alberto Agirreazaldegi

Mendizalea





Abenduaren 1ean Donostiako Antzoki Zaharrean izango da Markezen doinuak entzuteko aukera. KARKARA

Garai bateko indarrak berrituz dator kigu Markez

Kritika Mikel Markez

Musikaria, 'Indar bat dabil hor' obra Elkarren Donostiako Megadendan aurkeztu zuen urriaren 18an.

Indar bat dabilela hor esaten digu diskoa irekitzen duen abestiak. Abeslariarik ematen diote indar berezi hori kantuari. Amurizaren bertsoak dira eta berak ere abesten du. Josu Zabala-ren-Hertzainak, Gu ta gutarrak-soinuaren tinbrea, berriz, nabarmena da.

Segidan datorren *Gauza xumeetan* abestiak kantautore latinoak dakartzkigu gogora. Diskoan aurrera goazen

bezala, *Oueo* abestiarekin topo egitean, gauza bera nabaritu dezakegu; Markez *latino*a entzun daiteke.

Baina kantu erromantiko batek egin zuen ezagun Markez eta erromantiko jarraitzen duela entzuten dugu *Ez da aski* eta *Lo sakonetik* abestietan. Begiak itxi eta entzuteko abestiak dira. Sentimenduz josiak. Abestiak diona benetan sentitzera iristeraino.

Aire ahizpen ahotsek izugarri janzten dute *Konplize ditut* eta abestia. Doinu dotore eta itsaskorra egin du Markez. Lehen diskoetara egiten dugu berriz ere salto. Pixkanaka janzten doan abestia da, ahotsak eta gitarra prota-

gonista direla. Tonu aldaketak ere bikainak dira eta asko goxatzen dute abestia.

Jack Warshawren *No Time For Love* abestiaren bertsio berria-Hertzainakek aurrez egina baitzuen-oso ongi ekarria da eta hurrengo abestiarekin, *Gauari galdezka* kantua erekin, nolabait lotu egiten da. Jarraipen goxo bat dirudi. *Erresumarik zabalena* abestia, berriz, abesti sakon eta malenkoniatsua da. Disko guztietan ekartzen du halako bat Markezek.

Disko xumea bezain landua. Hasierako Mikel Markez hura gogora dakarrena.

IKER GURRUTXAGA

Ikasleak idazle
Eider Begiristain

Kilometroak 2014

Dagoeneko badakigunez, Kilometroak, Gipuzkoako ikastolen jaia, urriaren lehenengo igandean egiten dena, hurrengo urtean Orion ospatuko da. Honek esan nahi duena da, lan asko daukagula egiteko aurretik eta horretarako dena antolatzen laguntzeko prest dagoen jende asko behar dugula. Nahiz eta oraindik urtebete falta,



euskararen aldeko festa honen inguruan hitz egiteko zenbait bilera egin dira jada.

Herritar bakoitzak gure aldetik pixka bat jartzen badugu, herrian giro oso oneko festa egitea lortuko dugu, baita beste herrietako jende askok hortaz gozatzea ere. Antolamenduaren bileren berri emango zaizue, beraz, animatu eta lagundu gure ikastolari festa hau aurrera ateratzen!

Herritar bakoitzak gure aldetik pixka bat jartzen badugu, herrian giro oso oneko festa egitea lortuko dugu

24 ORDUKO ZERBITZUA

IGLESIAS SARRAILAGILEAK
WWW.IGLESIASARRAILAGILEAK.COM

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerrojeras@yahoo.es
2010 ORO

faroko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutzlak

Duzko Gudari, 5 Tel: 943 24 67 74 Oro

izarra
GIZON MODA

Balea, 1 tel. 943 13 39 30 ORO
www.izarra.v@hotmail.com

KAXAIO
PLADURRA ETA IGELTSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com
656 777 574

» INKESTA

Zer neurri erabiltzen dute saregileek, sareak eta neurtzeko?

10 erantzun jaso ditu galderak. Zeuden hiru aukeretatik zuzena **braza** zen eta erantzun dutenetatik **6k** asmatu dute.



» HURRENGO GALDERA

Zein mendetakoak dira Goiko Kalen dauden etxerik zaharrenak?

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emailza 346. Karkaran argataratuko dugu.

» OSPAKIZUNA

**Kilometroak jaiko autoa Oriora**

Badirudi Kilometroak jaiko lekukoa auto berrian iritsi dela Oriora. Kasualitatea badirudi ere, Tolosan Kilometroak 2013an zozketatu duten Ford autoa oriotar bati tokatu zaio, Junkal Martinezi, hain zuzen ere. Txartel irabazlea Joana Gonzalez Orioko Herri Ikastolako ikasleak saldu zion bere amonari. Argazkian Unai Igartua KMK13ko koordinatzailea, Junkal Martinez eta senar Antonio eta Ford Easoko Jon Tolaretxipia.

» ZORIONAK!

Orioko postetxeari

Beti euskaraz egiten ez dutenei errieta egin eta zoritxarrak ematen ibiltzen gara, baina, oraingoan bestelakoa gertatu denez, zorionak emateko erabiliko dugu.

Orioko postetxean ematen dituzten ordainagiriak gaztelera hutsez izan ohi dira. Bada, horri buelta emanez, bietara emango dituzte hemendik aurrera. Ez da denbora asko ordainagiriak bi hizkuntzetara ematen dituztenetik, baina egin duten al-daketa txalotzekoa iruditu zaigu.

Beste toki askotan oraindik gaztelera hutsean jasotzen ditugu ordainagiriak. Bada, postetxekoen biderei jarraitzeko gonbita luzatzen diegu lerro hauetatik.

MIRANDA
ARTEZ LAMAR


tarina, ala, leño, eskalera...
behar diren astz lanak
egingo ditikizagu

Udalazpea bidex, 1 e-660 42 32 70» SARAUTS

PERTSIANAK
AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 Murgikotta 600 70 52 27



Joana Murgiondo
Aseguru-agenzia

ASEGURUAK

CCCI

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

Katu Horia
DIREKTOREKO BUREA

ESTROPALARI, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdian
605 67 64 35

ITZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

KAIUA

Plater konbinatuak,
bokatak, hamburgesak...

ANIBANCO PORTUA 35, BENEIA TEL: 640 840 080

EZPALAK



1959an, Luistarrek antolatuta, Zumaia, Getaria eta Oriokoak lehia. B. Lertxundi, J.M. Loidiri makila pasatzen. ARTXIBOA

Korrika Goiko Kalera

Oroimenaren kutxa

112an, 99 urte barru, Goiko Kaleko eskaileen igoeraren 100. urteurrenean, KARKARA-ko orduko kazetari gazteak probaren berri emateko idazten duenean, gogora ekarriko du lasterketaren lehen edizioan, 2012an, Andoni Camposek irabazi zuela, 50 bat urte lehenago Benitok jarritako marka hautsiz, eta Joseba Tarantinok egin zuela bigarren.

100. edizioarena posible izan liteke. Zergatik ez? Behobia-Donostia lasterketa 1919an lehenengo aldiz korrituzenean, inorgutxikesperoko zuen geroztikakoa. Eta

Oriokoak badu berezitasun bat, gainerako herri-lasterketen desberdin egiten duena: laburtasuna. Txanpa txiki bat besterik ez da, esprinta.

Etorkizuneko kazetariak zer kontatu gehiago izan dezan, datu batzuk emango dizkiogu: Benito korrikalariaren garaian, bazen beste bat azkarrak eskailerak igotzen: Anjel Solaberrieta *Lino*. Goiko Kalletik korrika jaisten, berriz, ona Andoni Camposen aita zen, Antonio. Donostiako *Real Sociedad* taldean ibili zen, atletismoan. Ez zen makala: ehun metro korrika 11 segundotan egiten zuen. Gipuzkoako selekzioan ibili zen. Baina campostarren korrikarako grina etzeko neskena ere bada. Mirentxu eta Arantxa Campos ere, Ando-

niren izebak, Realean ibili ziren korrika, atletismoko probetan. Norekin eta hara, Mari-bi Tarantino Josebaren izebarekin batera. Genetikaz hitz egiteko aukera ere ematen dute datuok.

Antoniok, beheraka, Goiko Kaleko azken eskailera multzoa salto batean gainditzen zuen –orain baino txikiagoa omen zen orduan–. Urte batean, nonbait, azken saltoan oinak behar bezala jarri ez eta muturrez aurrera erori zen, aurpegiarekin lurra jo eta sudurra hautsiz. Goraka inork ez du, noski, sudurra hautsiko. Ea nork inskribatzen duen bere izena bigarren edizioan, 99 urte barruko artikulurako!

[IÑAKI ITURAIN]

» JAIOTAKOAK

- Ander Esnal Sainbaatar, Orion, azaroaren 1ean.
- Paule Urbieta Berriozabal, Orion, urriaren 30ean.


» EZKONDUTAKOAK

- Aitziber Elizondo Arruti eta Xabier Berroeta Zabaleta, Orion, urriaren 18an.

» HILDAKOAK

- Jose Ramon Unanue Matxain, Orion, azaroaren 5ean, 59 urte.
- Jose Mari Agirresarobe Ibar-guren, Orion, azaroaren 3an, 64 urte.
- Jesus Lazkano Tolosa, Orion, azaroaren 2an, 77 urte.
- Ana Mari Ezama Zinkunegi, Aian, urriaren 27an, 84 urte.
- Jose Ramon Salsamendi Uranga, Orion, urriaren 23an, 88 urte.
- Maria Juaristi Ansola, Orion, urriaren 19an, 95 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 831 527



Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Galeon
TABERNA

plater konbinauak eta pintxoak

Tfnos: 943 83 06 09

GARMENDIA

INMOBILIARIA - ANOLKILARITZA - ASEGURUA

Ibai Ono, 1
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

HAIZE BERRI

taberna-jateetxea-kafetegia

Plater konbinauak, bokatak, hanburgesak, arrozak, eguriko menuak...

eta etxera eramateko zerbitzua!

8 kale Inakharra, 48101 I. 943 132 11 21. Abuztuaren 15etik

“San Francisco auzoa ezagutu nahi nuen, duen ospe txarra argitzeko”

Macarena Arrieta

Gizarte Langintzan Diplomatu

Ikasle-etxebizitzak, errenta oso merkean, gizarte lanaren truke. Hori da *Gazte solidarioentzako etxebizitzak* programaren oinarria. Helburua Bilboko San Francisco eta Otxarkoaga auzoak berpiztea da eta Macarena Arrieta bat egin du egitasmoarekin.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Gizarte Langintzako ikasketak egin zituen Gasteizen eta diplomatura egin bitartean koadrilako bi lagunekin partekatu zuen etxea. Orain, master bat egiten ari da eta urriaren 9an jaso zituen etxebizitza berriko giltzak.

Zertan datza programa hori?

Gazte solidarioentzako etxebizitzak programak Bilboko San Francisco eta Otxarkoaga auzoak berpiztea du helburu. Euskal Herriko Unibertsitateko edozein masterreko ikasleentzako egitasmoa da eta ikasturte batean, hilean 50 euroko alokairua eta gastuak ordaindu behar ditugu, eta horren truke astero lau orduko gizarte lan komunitarioak egin.

San Francisco auzoko erdigunean bizi naiz eta Bilbon bizi diren etorkin gehie-

nak han pilatuta daudenez ez du ospe onik. Ezjakintasun hori argitzeko eman nuen izena programan eta auzoa bertatik bertara ezagutzeko. Aurreiritziak baztertu eta pentsaera irekia edukitzea ezinbestekoa da, auzo hauen inguruan sortzen diren beldurrak ezjakintasunaren ondorio baitira, eta honi aurre egiteko bertako eguneroko bizitzan parte hartu behar da, jendea ezagutu.

Krisi garaian alokairu merkea ordaintzea ez da erraza. Nola lortu duzu?

Dokumentu guztiak bidali eta elkarrizketa egin zidaten nire profila begiratzeke: boluntario moduan izandako esperientzia, ikasketak, motibazioak... Horiek kontuan hartuta aukeratu ninduten eta urriaren 9an giltzak eman.

Programan parte hartzeko ezinbestekoa zen Bilboko EHUko master batean

matrikulatua egotea, eta 35 urtetik beherakoa izatea. Horiez gain, kontuan hartu dituzte interes pertsonala, familiararen egoera ekonomikoa, boluntario gisa izandako esperientzia...

Gasteizen ikasten ari nintzenean, Francisco de Vitoria ikastetxean laguntza eskolak eman nituen. Ikasleen gehiengo etorkina zen eta ikasketetan arazoak zituztenei laguntzen nien, gehienbat euskararekin. Iazko udan *Leonekin* izeneko Gobernu Kanpoko Erakundearekin Nikaraguan izan nintzen Leon hiritik gertuko landa eremuko eskola-irakasleari laguntzen.

“Hilean 50 euroko alokairua eta gastuak ordaindu behar ditugu eta horren truke astero lau orduko gizarte lan komunitarioak egin”

“Tkasleekin irakurketa teknika berriak landuko ditugu irakurketa maila hobetzeko eta euskararen garrantzia azpimarratzeko”

Zure ikasketak praktikan jartzeko ere baliagarri izango da programa, ezta?

Nazioarteko Garapena eta Lankidetzari buruzkoa da masterra eta gizarte lan komunitarioak oso baliagarriak izango zaizkit lankidetzan, jardungo bainaiz auzoko eskolarekin eta proiektu hauetan garapena bultzatzen delako, ikasleen garapen pertsonala, baita auzoarena ere.

Zein lan egin behar duzue?

Astean bi egunetan, San Francisco auzoko Miribilla ikastetxean –ikasleen gehiengo etorkina da–, euskarazko irakurketa tailerreko laguntzailea izango naiz. Ikasleekin irakurketa teknika berriak landuko ditugu irakurketa maila hobetzeko eta euskararen garrantzia azpimarratzeko integrazioaren giltza nagusienetako hizkuntza baita.

Ikasturtea hasi baino ez da egin, baina nola ikusten duzu jarraipena?

Hilabete oso gustura nabil Bilbon; pisukideekin, auzokideekin... Oso giro polita dago, kultura guztietako jendea bizi gara eta horrek kolore berezia ematen dio auzoari. Eskolako programan bi aste barru hasiko naiz eta itxaropentsu nago, ahal dudan guztian lagunduz esperientzia berria bizitzeko desiatzen.



KARKARA

ZERBITZUAK

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan eskaerak

■ Emakumea lanerako prest. Asteburuetan, orduka. Edadekoak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tf.: 616 136 439.

■ Mutila lanerako prest. Adinekoak zaintzen edo beste lanetan. Arauzko dokumentazioa eguneratuta. Tf.: 644 360 164.

■ Adineko gizona zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest nago. Gizon gaztea, arduratsua eta zaintza lanetan esperientziaduna naiz. TL: 632569121

■ Edozein lan egiteko prest nago 10:00etatik aurrera. 666 116 641 (Nubis Rodriguez)

Galdutakoak

■ Urre gorri eta urre zurizko belarritakoa galdu nuen udan. Norbaitek aurkituko balu, deitu mesedez zenbaki honetara. Tf.: 671 805 419 -Enkarni-

■ Urrezko lepokoa galdu dut. PE inizialak ditu

grabatuta. Norbaitek aurkituko balu, deitu telefono zenbaki honetara: 676 208 466 -Xabi-

Salgai

■ Garaje itxia dut salgai Orioko Goiko Kalean. Tf.: 649 308 092.

■ Bugaboo Camaleon ume-kotxea eta kukoa ditut salgai. Hiru fundarekin -gorria, arrosa eta beltza- eta zaku gorriarekin. Kukoarentzako pikezko zaku zuria eta barruko funda zuria ere baditut. Dena 200 euro, xasis gabe. Oso ondo dago. Tf.: 606 952 320.

■ Inglesina haur-kotxe urdin iluna salgai. Berri berria. 350 euro. Tf.: 606 952 320.

■ Koltxoi on eta oso gutxi erabilitakoa dut merke-merke saltzeko -250 euro, erositako prezioaren herenean-. Viscolastikoa eta erdian muelleduna, 1,80 x 1,90m neurrikoa. Tf.: 634 429 459

Auto-partekatzea

■ Goizero Oñatira ikastera joateko autoa partekatze-ko norbaiten bila ari naiz. 08:00etarako Oñatin egon behar dut eta 14:30etik aurrera bueltatzeko. Tf.: 627 630 022 -Mikel Arregi Satrustegi- edo Muxutruk lore dendan.

Alokatu

■ Garaje itxia alokagai Orioko Goiko kalean. Tf.: 669 254 741 edo 699 716 253.

Hezkuntza

■ Lizentziatua, Pedagogi-ka gaitasun agiriarekin -CAP- eskola partikularrak emateko prest. Prezio onean. Tf.: 652 551 550.

Beste

■ Helduei bizikletan ibiltzeko oinarriko pausoak irakasteko prest nago. Ordutegia interesatuekin adosteko. Doan. Informazioa: 658 758 458.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
08	07:42 eta 19:59	01:06 eta 13:41	☾
09	08:24 eta 21:06	02:02 eta 14:43	☾
10	09:35 eta 22:24	03:07 eta 15:55	☾
11	10:54 eta 23:44	04:22 eta 17:13	☾
12	12:11 eta _____	05:40 eta 18:25	☾
13	00:53 eta 13:17	06:50 eta 19:25	☾
14	01:50 eta 14:11	07:47 eta 20:15	☾
15	02:37 eta 14:57	08:36 eta 20:58	☾
16	03:19 eta 15:38	09:19 eta 21:37	☾
17	03:56 eta 16:15	09:58 eta 22:13	☾
18	04:31 eta 16:51	10:35 eta 22:48	☾
19	05:05 eta 17:25	11:11 eta 23:22	☾
20	05:39 eta 17:59	11:47 eta 23:57	☾
21	06:13 eta 18:34	12:24 eta _____	☾
22	06:49 eta 19:12	00:34 eta 13:03	☾
23	07:28 eta 19:55	01:14 eta 13:46	☾
24	08:13 eta 20:46	01:58 eta 14:35	☾
25	09:07 eta 21:48	02:50 eta 15:32	☾
26	10:13 eta 22:59	03:52 eta 16:37	☾
27	11:23 eta _____	05:01 eta 17:41	☾
28	00:06 eta 12:28	06:06 eta 18:40	☾
29	01:03 eta 13:23	07:04 eta 19:32	☾
30	01:52 eta 14:13	07:55 eta 20:19	☾
01	02:38 eta 14:59	08:43 eta 21:04	☾
02	03:22 eta 15:45	09:29 eta 21:49	☾
03	04:06 eta 16:30	10:14 eta 22:33	☾
04	04:51 eta 17:16	11:01 eta 23:18	☾
05	05:36 eta 18:04	11:48 eta _____	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

AZAROA

- 8an, Gallo.
 - 9 eta 10ean, Azaldeg.
 - 11n, Larrañaga.
 - 12an, Mutiozabal.
 - 13an, Etxeberria.
 - 14an, Gallo.
 - 15ean, Azaldeg.
 - 16an eta 17an, Zulaika.
 - 18an, Mutiozabal.
 - 19an, Etxeberria.
 - 20an, Gallo.
 - 21ean, Azaldeg.
 - 22an, Zulaika.
 - 23tik 29ra, Lasa
- Gaueko zaintza: Iriarte.

- **Azaldeg:** Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943832398 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943830936 Orrio
- **G. Artifiano:** Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943132983 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

Sagasti LEIHOAK

ROBERTO BAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77

sagastileihoak@telefonica.net

Arrantzale kalea, 65

20810 Orrio (Gipuzkoa)

Zaragueta Herri Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52

e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Autozkue

Tf: 943 13 04 38

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00



» AGENDA



Futbolari ohia bakarrizketan

Futbolista ohia izateaz gain, telebistako aurkezle, aktore eta musikari ere bada Zuhaitz Gurrutxaga. Oriora, baina, futbol kontuekin etorriko da azaroaren 15ean. *Futbolista baten konfidentziak* bakarrizketa eskainiko du 22:30ean, Kultur Etxean. Bere kirol ibilbideko bizipenak kontatuko ditu, zeharo lotsagabe: entrenatzaileen kontuak, taldekide eta adiskideenak, bidaietakoak... Gonbidapenak Kultur Etxean hartu ahal izango dira aurrez.

aurretik udaletxera deitu.
Tf.: 943830346.

Hazi banaketa

■ Azaroaren 17an, hazi banaketa Herrioren eskutik, 11:00etatik 14:00etara, Herriko Plazan.

Orio

Desfilea

■ Moda desfilea, Arkupe elkarteak antolatuta, 18:00etan, Arraunetxan.

San Martinak

Azaroak 11, San Martin Eguna

■ 10:30ean: Meza nagusia, San Martinen.

■ Segidan, hamaiketako bertsolariekin: Patxi Etxeberria eta Egoitz Eizagirre.

■ Gero, toka eta sagar-biltzea. Azaroak 14, osteguna

■ 21:00etan: Mutil ardokoen afaria.

Azaroak 15, ostirala

■ 22:30ean: Mus Txapelketa, Oliban jatetxean.

Azaroak 16, larunbata

■ 06:00etan: Oilasko biltzea.

■ 17:00etan: Ume-jolasak.

■ Ondoren, txokolate jatea.

■ 19:00etan: Triki-poteoa herrian barrena.

■ 21:00etan: Erromeria-afaria, Gari eta Iñaki trikitilariekin. Txartelak salgai Olibanen eta Kutixin.

Azaroak 17, igandea

■ 11:30ean: Herri-kirol apustua

Aia eta Orioko taldeen artean.

■ Ondoren, bailarako bazkaria, Jagoba eta Maddalen trikitilariekin.

Azaroak 22, ostirala

■ 21:00: Afaria.

Bingoa

■ Azaroaren 13an, 20an eta 27an, 16:30etik 18:30era, Jubilatuen Elkarteak antolatuta, Kultur Etxean.

Hitzaldia

■ Azaroaren 13an, *Gaur egungo energia sistema eta irtenbideak: kooperatiba energetikoa* hitzaldia, Herriok antolatuta.

ta. Hizlaria: Joanes Maiza. 19:30tan, Kultur Etxean.

Bilera

■ Azaroaren 14an, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera antolatzeko bilera, parte hartu nahi duten herritarrentzat, 20:00etan, Kultur Etxean.

Ikastaroak

■ Azaroaren 14an, *Master Class*, Marc Molinaren eskutik, 19:00, Kultur Etxean.

■ Azaroaren 16an eta 17an, Chikung CFQ ikastaroa. Irakaslea: Alex Arellano, larunbatean 16:00etatik 21:30era eta igandean, 09:00etatik 14:30era, Mandalararen lokalean. Tf.: 648 487 489.

Traste zaharrak

■ Azaroaren 16an eta 27an, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien ondoan. Atera

Aia

Ibilaldia

■ Azaroaren 9an, *Leku izenak, ingurunearen aurkibide* ibilaldia. Euskal leku-izenak baliatuz, gizakiaren eta ingurunearen arteko elkarreragina ezagutu eta sentituko dituzte, hizkuntza eta ekologia kontzeptuak landuz. Prezioa: 5 euro helduek eta 3 euro 5 eta 12 urte artekoek. 10:00etatik 13:00etara, Iturraranen.

Silo-Bolak

■ Azaroaren 12an, Silo-bola plastikoen bilketa. Informazioa: Urkome -943 81 65 00- edota Igor -660 049 751-.

Podologoa

■ Azaroaren 23an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.





NADETH AGIRRE

'Gaztelaniaz egiten didatenean ere, nik euskaraz erantzuten dut. Nahiago dut euskaraz egin'



M. JOSE GARATE

'Askotan, bi edo hiru euskaldun juntatu eta, hala ere, erdaraz egiten dugu. Horretan ez dugu asko aurreratu'



KEPA LOIDI

'Erdaraz bakarrik dakienak hemen bizitzea badauka. Euskaraz bakarrik dakienak, ez. Marka da hori!'



UNAI MANTEROLA

'Natural egiten dut euskaraz, horretaz pentsatu ere egin behar izan gabe. Hala behar duela iruditzen zait'



RUTH ETXEBERRIA

'Parketan asko egiten da erdaraz gurasoen artean. Eta hor hartzen diren ohiturak aldatzea kosta egiten da gero'



Euskaraz
bizi-bizi

ORIOITARROK
EUSKARAZ BIZI
NAHI DUGU, BIZI

